

5. Kapitulu

Europako demokraziak gerrarteko garaian

Alejandro R. Díez Torre

Historia Garaikideko Irakasle Titularra
Alcalako Unibertsitatea

Demokrazia lege-askatasuna bermatzen duen erregimen gisa defini daiteke aipatutako garai honetan, parte-hartzerako eta ekintza politikorako dispositibo zabal eta anitza aintzat harturik. Erregimen hartan alternatiba politikoak eskaintzeko aukera zegoen; bai eta batzartzeko askatasuna, adierazpen-askatasuna eta gainerako oinarrizko askatasunak ere. Aipatutako erregimen hartan, aldian-aldian, hauteskunderen bidez, legezko gobernuak aukeratzeko eskubidea zegoen. Gobernu haietako buruak era librean eta indarkeriarik gabe lehia-tzen ziren euren artean boterea ezartzeko. Betiere, agintari politiko guztiek prozesu demokratiko berean sartu behar zuten, eta komunitate politikoko kide guztiek parte hartzeko neurriek benetakoak izan behar zuten.

Honek guztiak zera esan nahi zuen gerrarteko politika praktikoa: alderdi politikoak sortzeko eta hauteskunde libreak egiteko aukera zegoela —iruzurrik gabeak—, eta hautesleen aurrean aurkez zitezkeela —eta legitimotasuna hartu—, haien aurrean ardura politikoengatik zuzenean edo zeharka erantzunez. Kontuan izanik demokrazia haietan gizonezkoek zutela sufragio unibertsalerako eskubidea eta hautesle-kopurua handitu egin zitezkeela emakumeek parte hartuz (hau da garai hartako berrikuntza politikoaren gakoetako bat, pixkanaka sistemara txertatzen joango zena). Erregimen demokratikoaren ezaugarri nagusia ez zen izan iritziak —agintean zegoen alderdiaren ildokoak edo aurkakoak— neurririk gabe adierazteko askatasuna, baizik eta lege aldetik guztiek aukera bera izatea edozein iritzi adierazteko eta Estatuaren babes izatea edozein salbuespenen aurrean (eskubide haren aurka egindako indarkeriaren aurrean, bereziki).

Gerrarteko garaian demokrazia batzuek balio demokratiko hauei lehen-tasuna emateaz gain, beste batzuk ere babestu zituzten (buruzagiak eta korronte politikoak kalkulatzeko edota bateratzeko helburuak eta integrazio de-

mokratikoa lortzeko). Balio demokratiko berriak gizartearen eskakizunetatik zetozen. Aurreko eskubideei eta lorpen politikoei berdintasun-egoera berriak gehitu zitzaizkien, lan-mailan, gizarte-laguntzan eta heziketan, gizarte demokratikoetako giza balio eta eskubideak baitziren. Demokraziek tirabirak baretu nahi zituzten eta arriskutsuak izan zitezkeen taldeen gorakadei aurrea hartzeko onartu zituzten era honetako hedapenak —ahaleginean, makina bat borroka sozial gertatu zen, eta, batzuetan, onarpena ez zen gogo onez egiten edo berandu iristen zen, epe eta arazo luzeen ondoren—.

Dena den, zenbait herrialdetan, aurreko erregimenen zamak, estatuaren prepotentzia- eta bortxa-adierazpenen bidez, are gehiago pozoitzen zituen egoera legitimoak, demokraziak mehatxatu edo hondatzeraino. Baina aztertuko dugun kasuren batean, politikari argiek eta erregimen demokratikoen alde konpromisoa zutenek erraz gainditu zituzten egoera haiek. Eta buruzagi politikoei —talde ekonomiko eta sozialekin loturarik ez zutenek— beste agintari totalitario batzuek baino eraginkorrago egin zuten beraien lana, erakunde demokratikoak zuzenduz edo ordezkatzuz. Buruzagi haiek beren lana bete zuten egoera ekonomiko nahasiak garbitzean eta gizarteko tentsioei aurre egitean, herri xehearen eskaera ahaztu gabe, demokrazia erregimen eraberrituetan.

1. Aurreko egoera: nazioarte-mailako egoera nahasia eta desoreka

Lehen Mundu Gerraren ondoren, panorama mingarria geratu zen agerian eta zauri asko sendatu barik —demografikoak, sozialak eta ekonomikoak—. Horiez gain, aldaketa eta gorabehera asko antzeman zitekeen: barruan, borrokan ibilitako herrialdeetan alegia, eta nazioarte-mailan ere bai. Gerran hildako hamar milioi pertsonari milioika elbarri gehitu behar zitzaion, eta hauek aurrekontu ofizialen laguntza behar zuten. Horrenbesteko egonezinak eta moralaren eta gizartearen hausturak eragin zituzten zauriak ezin izan zituzten hurrengo belaunaldian sendatu, 20ko hamarkada zoriotsuan.

Mundu-mailako arazoaren ondorioetako batzuek bizirik iraun zuten edo handitu egin ziren; hala nola, Europako zorraren zikloa, estatuaren interbenzionismoa eta moneta-inflazioak. Beste ondorio batzuk, herrialde galtzaileen konponketak esate baterako, estalita geratu ziren Depresio Handiak eragindako egoera nahasi orokorragatik, 30eko hamarkadan. XX. mendeko mundu-mailako lehen gatazkan irabazleen eta galtzaileen egoerak aztertuta —edo irabazia/kostua—, gerrak proiektzio orokorra izan zuela esan daiteke. Honetan izan zuen isla: egonezin ekonomikoan (segurtasun ezaren eta ustekabeko gorabeheren bidez adierazten zen); demografiaren etorkizun eztabaidagarrian; eta, azken batean, zibilizazioaren krisi-mehatxuan (erdi agerikoa eta politika-buruen konponbideen —esklusiboak eta kanporatzaileak— menpekoea). Krisi honek egonezina sortzen zuen. Hori dela-eta, denbora batez buruzagi zaharrek izan zuten boterea; antzinako konponbideak erabiltzen zituzten

eta ez zuten gaitasun handirik hondatutako egoerak konpontzeko, ez eta hondamenari eta ustekabeei aurre egiteko.

1.1. Versaillesko itunaren ondorioak Europan

Hasiera batean, 1919ko urtarrilean Bake Konferentzian bildu ziren herrialde beligeranteek ez zituzten aintzat hartu menperatutako herrialdeak, ez eta haien egoerak, gerraren ondorengo egoerari aurre egiteko. Eta estatu garaileen artetik lauk baino ez zuten nazioarteko *statu quo* prekario bat diseinatu; Britainia Handiaren izenean Lloyd George, Frantziarenean Clemenceau, Italiarenean Orlando eta Estatu Batuen Wilson. Erdialdeko Inperioetako hondakinetatik sortutako Estatu-bezeroen gaineko patroitzaren sorrerak, esate baterako, indar txikiko Estatu menpekotza bultzatu zuen. Indar txikiko Estatu haiek demokrazia makal bilakatu ziren —nazioarte-mailan jaio berriak—, eta hondoratzeko arriskuan zeuden etengabe, edo erregimen gainditu bilakatu ziren, eta Inperioen artean babesik gabe egongo ziren etengabe. Egoera horretan, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeak zorren bidetik eta menpeko itunen bidetik abiatu ziren, ordainetan onarpena eta laguntza tekniko zein materiala jasoz. Hau guztia onarpena eta lurak irabazteko asmoz egin zuten, ase gabeko nazionalismoen itxaropen giroan bertiere —zaharrak eta berriak, historiaren joanean—.

Europak berreskuratu zuen bake-geografia berrian, gauzak ez ziren askorik baretu eta ez zen herri eta nazionalitateen autodeterminazio-eskubiderik errespetatu, nahiz eta Amerikako presidente zen W. Wilsonen Europa berria zatitzen esku hartu (zenbait nazionalitate historikoren ibilbide berriak bultzatu zituen, Estatu-nazio gisa abia zitezkeen). Haren obsesioak edo ametsak alferrekoak izan ziren. Kasu batzuetan zapalketak ordezkatu egin zituzten, beste batzuetan hedatu egin ziren gerraosteko Europako mapan zehar. Horrela, Errumania lozorroan zegoen eta barruan lau milioi atzerritar zituen atera ezinik; fikziozko Txekoslovakiak, hiru milioi alemaniar; Jugoslavia artifiziala zen, *hegoaldeko esklaboentzat* sortua eta herri zentrifugoz osatua (estatu-tapoiak, sobietarren aurkakoak) eta serbiarren agintearen inguruan eraikia —oso monarkiazalea eta zentralizatzailea—; etab.

Diplomazia tradizionalaren ildotik —hura ondo ezagutzen zuten Versaillesko estatu-politikari zaharrek—, Europako garaileek ahalik eta etekin handiena atera nahi zioten garaipenari. Eta askotan, konpromiso sekretuek ukatu egin zuten Eskubidearen gerra zeritzonaren bukaera bake-negoziaketetan. Lehian zebiltzanek argudio hau izaten zuten eta hori berori jaso zuten *ordena* eta *eskubide* berriak nahi zituzten negoziatzaileek, alegia injustiziaren eta bortizkeriaren aurka babesa nahi zutenek. Alderantziz, negoziatzaileek berdintasunik gabeko transakzioak egin zituzten herrialdeen artean bake-itunetan. Horrela, itunek Mendebaldeari ematen zioten nagusitasuna Europako eszenatokian, bi gertaera nagusiren bidez: alde batetik, Alemaniaren

indar militarra ezerezean utzi zuten, eta, ekonomikoki makurtuaraziz, herria inpotentzian eta prekarietatean utzi zuten; eta bestetik, Balkanetako eta Erdialdeko Estatuak zatitu ondoren, beraien artean, menpekotasunak lerrokatzeko, aliantza militarrek sortzeko eta finantza-laguntzak nahitaez lortzeko premia zuten.

Beste alde batetik, irabazleek ez zuten hasierako adostasuna ia ezertan aldatu, 1920an Nazioen Liga gisa sortu zen epaiketa-foroan ez zutelako askorik sinisten eta ez zutelako nazioarteko kooperaziorik nahi. Arrazoi hauei zera gehitu behar zaie: herrialde garaileen interesen eta tentsio-guneen arteko talka. Itxura batean berreskuratutako *bakea* baino fiktizioagoa izan zen gerraosteko Europaren balizko susperraldi ekonomikoa.

Garaileek hondamendi zuzenari —material, produkzio eta finantzetan— Gerra Handiak eragindako gastuak gehitu zizkieten (kaltetutako produkzio-egituraren jarraipen gisa): suntsitutako eskualdeak berreraiki, erreserbak berritu, materiala berritu, inportazioen kostua gehitu, etab. Gerraren ondoko urteetan, finantza-higadurak gogor eraso zien herrialdeetako aberastasunei. Demokrazia elbarrien artean, Frantzia eta Britainia Handiaren finantza-arazoak agertu ziren, Alemaniaren prekarietatea eta Italiaren desbideraketa ekonomikoa. Italia minduta zegoen garaileek egin zuten banaketa zela-eta. Horregatik hartu zuen faxismoaren bidea. Espainia eta halako herrialde neutralen egitura-arazoak ere agerian geratu ziren (honek ere Primo de Riveraren diktaduraren bidea hautatu zuen). Azken batean, gerraosteko Europaren neke-sintoma guztiak agertu ziren, eta polo biko mundurako joera ere nabarmen geratu zen.

Bestalde, Versaillesko itunen ondorio ekonomikoa zama handia —eta galdutako aukera— ziren oreka ekonomikoa lortzeko. 1919ko ekainaren 28an izenpetutako itunak 231. artikuluan zioenez, Alemania eta haren aliatuak izan ziren gatazka piztu zutenak. Orduan, garaileek gerrak eragindako kalteei prezioa ezarri zieten; haren ondorioz etorri ziren konpentsazioak, lurralde-banaketak eta erantzukizuna zuen potentziaren flota-eta kolonia-banaketa. Horrez gain, Alemania desmilitarizatu eta dirua ematera behartu zuten, kalte-ordain ekonomiko modura —errekargu edo oztopo handiak, industria sustatzea ezinezkoa izan zedin—. Alemania menpeko herria zen ordurako. Hainbat kalkuluren arabera, Alemaniak galera hauek zituen: lurraldearen %13, nekazaritza-lurraren %15, populazioaren %12, manifakturen %10, ikatzaren %16 eta burdinaren %48. Horrez gain, kalte-ordain ekonomikoak bakarrik 132.000 milioi marko/urre ziren 1921. urtean. Horien artean, %22 Britainia Handiari eman behar zioten, eta %52 Frantziari.

Ordainketak egiteko erabaki gogorra hartu zutenetik, aurkako jarrera sortu zen, konponbidea ez zelako batere orekatua eta politika horrek kostu ahala kostu egin behar zuelako aurrera. Jarrera hari diplomazialari eta behatzaile zoliek eman zioten hasiera; Harold Nicolsonek eta Norman H. Daviesek, eta J.M. Keynes halako izen handiko ekonomialariek —ordutik aurrera gehiago nabarmendu ziren gainera—, eta W.H. Dawson bezalako historialari

arretatsuak. Alemanian, pentsatzekoa zenez, inposaketa haiek aurkako jarrera eta erremina eragin zuten gizarte osoan, sentimendu horiek gainera iraun egin zuten luzaro. Horren erakusgarri da Alemaniako historiografia; kasu gehienetan, Versaillesko *Dicktataren* aurkako erasoak sustatu zuen. Baina kritika garrantzitsuenak J.M. Keynes ekonomialariaren kritizismo ekonomikoak argudiatu zituen. Keynes ordezkari britainiarretik kanpo geratu zen itunaren azken erabakien aurka protestatzeko.

Versaillesko Itunaren inguruko *kritizismoari* buruzko eztabaidak eragiten zituen distortsio ekonomikoak buruzkoak ziren gehien bat, eta baita errebanxismoak etorkizunean ekarriko zituen mendeku politiko eta ideologikoei buruzkoak ere. Bide hartatik, gerraosteko testuinguruari buruz, Keynesek esan zuen etorkizuneko benetako arriskuak ez zirela muga-kontuak soilik izango, «baizik eta janaria, ikatza eta merkataritza», eta ziur zegoen «itunak ez zuela ezer finkatu praktikan, egin zitekeen guztia gaintu zuelako». Ordutik aurrera, Keynesek jakituria txikiko konponketaren baldintza ekonomikoak kritikatu ez ezik —Alemania itotzeko helburua zuelako—, ekonomiaren eklipse luzeak Europan eta Europatik kanpo izango zituen arriskuez ohartu zuen. 1921ean, Parisen eta Londresen arteko hartuemanak nahiko hondatuta zeudenean (nahiz eta Ingalaterrak kezka izan Frantzia Alemaniarekiko mendekuzalea izango zela), Versaillesko Itunaren ikuspegi berri eta indartsu batek Frantziaren norabidea eta argudioak bultzatzen zituen (argudio hauek bi urte arinago igorri zituzten bertara).

Versaillesko konponketa mantentzearen aldeko arrazoiek, Frantziaren mendekua gauzatu beharrean edo Alemaniari bake *punikoa* (Kartagokoa) ezarri beharrean, Frantziaren egoera larria eta hondamena baloratu zuten, 1918 eta 1923 urteen artean. Era berean, ahalegin orokorrak aliatuen egoera militarra babesteko eta Europaren egoera ekonomikoa —eta kooperatzailea— berriz eraikitzeko izan ziren. A. Tardieu, Frantziako lehen ministroa, tesi hauen alde azaldu zen 1921ean, Alemaniarekiko tratuan hiru gauza azpimarratuz. Alde batetik, frantziarren ikuspegitik esan zuen, alemaniarrek zuten plan menperatzailearekin alderatuta, Alemaniak izandako lurralde-galerak ez zirela burua makurtzeko bestekoak. Ondoren esan zuen hondamendiak —Frantziari handiagoak zirenez— beharrezko egiten zuela Alemaniaren industria-aberastasuna transferitzea —konpentsazio-erara—, Frantziako ekonomia jipoitua berreraikitzeko. Azkenik, sinesgarritasun handirik ez zuen argudio bat bota zuen: Frantziari edo Belgikari egindako konpentsazioek geldiaraziko zituztela Alemaniaren etorkizuneko asmoak.

Azken puntu honetan esan daiteke —Alemaniaren arazoaren artean— 1919tik 1923ra bitarteko inflazio kronikoa arrazoi batek eragindakoa izan zitekeela batez ere: Alemaniako gobernuek billeteak jaulkitzeko errekurtsio lagungarria. Edo beharbada, Rhin inguruko industriek bultzatutako espekulazio handiak zuen horren errua. Bestalde, Frantziak Europan bloke ekonomiko bat sortzearen aldeko jarrera zuen, Merkataritza-ministroaren 1918ko proiektuaren arabera. Bloke hau lehentasunezko tarifen eta akordio bide-

tik joan zitekeen konkurrentzia-arloan. Baina bai proposamen hartarako, bai *babes*-sistamarako —non Renania desmilitarizatuak zentzua izango zuen—, mendebaldeko botereen itun iraunkorra behar zen. Frantziarren eredu hau kolapsatu egin zen Estatu Batuen laguntzarekin. Arrazoi hau dela-eta, Frantzia bakarrik zegoen bere ekonomia indartzeko eta alemanen konponketen menpe geratu zen. Frantziak Versaillesko Ituneko argudio hauek errebin-dikatu zituen. Argudio horiek defendatu zituzten Frantziako historialari garaikide batzuek (J. Nere), Alemaniako beste batzuek (W. Karr, A.J. Nicholls) eta nazioarteko harremanetan adituek (J. Marks, G. Shulz), eta beste batzuek azterketa-bide berri bat urratu zuten (M. Trachtenberg, W.A. McDougall). Tardieu-ren ikuspuntu frantziarra berriz aztertuz, hogeitaz urteren ondoren —Bigarren Mundu Gerran— aukera emango zion E. Mantoux-i bake *kartagotarraren* ikuspegi kritikoari eta Keynesen ondorio ekonomikoari errequisitoria bat formulatzeko.

Azkenean, Keynesengan oinarrituta, korrante *kritikoa* gailendu zen (konponketa ekonomikoaren eta Versailleskoaren garaikoa zen). 1924an, Dawes Planak Alemaniaren konponketa-metodoa aldatu zuen, ordainketak zatika eginez eta trenbideetako eta industria astuneko hipoteken bidez bermea lortuz. Rhur-en ebakuazioa planteatu eta negoziatzeko gogo berri bat sortzen zen bitartean (Locarnoko Konferentzia, 1925eko urrian; Alemania Nazioen Ligan onartu, 1926an), sistemak martxan jarraitu zuen 1930era arte. Urte hartan, Young Planak luzatu egin zuen ordainketa-egutegia (1988an amaitzea aurreikusita zegoen) eta aliatuen kontrolak kendu zituen (aliatuen ebakuazioa Renaniatik, esate baterako). 1932an, Lausanako Itunak konponketa eta epe guztiak bukatutzat eman zituen. Versaillesko Itunarekiko *kritikoa* zinenen iritzi, mesede horiek berandu iritsi ziren. Esate baterako, Alemaniako iritzi publikoa adiskidetzeko, konponketa baten eta aldikako azterketen bidez, hartara Frantziaren isolamendua edo Alemaniaren berpiztea bultzatuz (eta, azken batean, nazien eraso Estatuari, hogeita hamarrek hamarkadan).

Finean, Versaillesko Itunaren oposizioak bi interpretazio desberdin sortuko zituen, baldintzei eta benetako eraginari dagokienez. Alde batetik, nazi-fenomenoa haren ondorioetako bat zela argudiatu zuen jarrera dago; izan ere, Alemaniako iritzi publikoak gehienetan *Dicktat* onartezina zeritzon. Eta beste alde batetik, ikuspegi alternatibo baten iritzi, naziek Alemanian izan zuten arrakasta itun bigun baten ondorioa izan zen. Bigarren interpretazio horren arabera, ituna hasiera-hasieratik geratu zen ezerezean, baldintzen errebisionismoa zela-eta; aliatuak hasierako eskakizunetatik urrunduz joan zirelako pixkanaka eta azkeneko ez zeudelako elkartuta, frantziarrek isolamendu birtuala zutelako eta alemaniarrek pizkundera. Bi ikuspuntuak azaldu zituzten bi obratan, bata J.M. Keynesena zen eta bestea E. Mantouxena. Egia esan, Versaillesko Itunak asmatu egin zuela esatea zaila da gaur egun, ez baitago erantzun argirik. Ebidentzia sendoak —besteek adina balio dutenak— oinarritzat dituzten iritziak badaude egon, alegia itunak zenbait arlotan izan zuen eraginaren aldetik. Edozein modutan, argi dago European gorabeherak

eta oreka txikiko egoerak gertatu zirela eta ondoren munduko beste toki batzuetara zabaldu zirela, uhinen antzera.

1.2. Ezegonkortasun ekonomikoa eta gobernu kontserbadoreak

European, alemaniarren bazterketaren eta aliatuen atzerapenen ondorioz, Alemaniak konponketarako egin behar zituen ordainketak luzatuz joan ziren. Era honetara, beste arazo bat sortu zuten: Estatu Batuekiko gero eta zor handiagoa. Izan ere, hornidurak zirela, maileguak zirela, nazio aliatuak zorretan zeuden eta gerrako zorrak ez zizkieten ordaintzen. Joera honen eraginez, Lehena Mundu Gerrak sortutako merkataritzaren eta finantzen distortsioak bere horretan jarraitzen zuen. Honi, gainera, nazio aliatuen gerraosteko egoera gehitu behar zitzaion. Ildo horretatik, oso adierazgarriak dira Estatu Batuen eta Frantziaren egoera kontrajarriak. Ipar Amerikako potentziaren erre-erba 278 milioi liberakoa zela kalkulatu zuten 1919an 1913arekin alderatuta, epe horretan erlazio hori negatiboa izan zen Frantziarentzat (-25 milioi). Egoera hura ulergarria zen, kontuan harturik Ipar Amerikan ez zela gerrarik izan eta Frantziak gerrak eragindako hondamena nozitu zuela. Arrazoi hori dela-eta berreraiki zituzten 1.000 lantegi, 1.500 ikastetxe eta 246.000 eraikin. Beste alde batetik, merkataritza-ontziteriari egindako kalte gehiago izan zuen Frantziak: Ipar Amerikakoari 400.000 tona hondoratu zizkieten, eta 900.000 Frantziakoari.

5.1. Taula

Frankoaren balio-aldaketak dolarrarekiko

	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
1919	5,45	5,45	5,76	5,98	6,35	6,38	6,87	7,74	8,37	8,59	9,30	10,87
1920	11,74	14,28	14,04	16,24	14,64	12,62	12,31	14	14,81	15,33	16,69	16,90

Iturria: A. Sauvy, *Histoire économique de la France entre les deux Guerres*, Fayard, t. I, 1965. 455. or.

Eta irudia osatzeko, aintzat hartu behar dira herrialde hauen demografia-ekarpenak: 115.000 iparramerikar hil ziren gerran; frantziarrak, berriz, 1.360.000. Gerrak ekarri zituen galerei eta hazkunde ekonomikoari buruzko kopuruak alderatzeari beste ondorio bat ere gehitu behar zaio: dibisei gerraosteak eragin zien drainatzea. Aurrez alderatu ditugun herrialdeak berriz ere parean jarrita, kontraste nabarmena igarriko genuke (ikus 5.1. irudia).

Beste herrialdeetan ere izan zituzten gorabeherak balantzeetan, galerak, gerrak eragindako moteltzeak eta irabaziak. Ekonomiari dagokionez, gerrari

onura atera zioten herrialde gehienak ez ziren europarrak. Gerra-garaian, gerran murgildutako herrialdeen industriaren premiei edo gero eta kontsumo handiagoari erantzuteko, milaka produktu hornitu zituzten. Irabazlerik handiena: Estatu Batuak. 1914a baino lehen, egoera onean zegoen, eta, ordutik aurrera, merkantzia-esportazioak areagotu egin zituen, alde bietako arerioen erosleei merkatuak irekita zeuzkalako. Azkeneko unean, estrategia militarren eraginez, merkatuak blokeatu egin ziren, eta potentzia aliatuak Ipar Amerikako industriaren erosle nagusi bilakatu.

Ordainketak eta konpentsazio ekonomikoak Estatu Batuetara joan ziren 1919tik aurrerako hamar urteetan, Europarako esportazioen eskari eta estaldura gero eta handiagoaren eraginez. Eta kapital-esportatzaileak izandako herrialdeak —Alemania, Britainia Handia eta Frantzia— zordun bilakatu ziren (guztiek ere inbertsio handiak egin zituzten gerra baino lehen Estatu Batuetan, beren kolonietan eta Hego Amerikan). Eta fakturak dolar/urretan ordaindu behar izan zituzten. Horretarako, Estatu Batuetan inbertitutakoa saldu egin behar izan zuten; baina ez hori bakarrik, maileguak ere eskatu zituzten zorrei erantzuteko. Gauzak horrela, desio zuten aurrerapena (1920ko garai *zoriontsua*) baino azkarrago ibili ziren arazoak. Sare komertzial eta finantza-lokarri estu eta berriak sortu ziren, menperatuta eta kalte-ordainak ordaintzera behartutako potentzien artean eta erosketa- eta kreditu-emaileak ziren potentzia irabazleen artean. Hauek dirutzak pilatu zituzten kalte-ordainei eta kreditu berriei esker, berriz ere zorrak sortuz, bigarren edo hirugarren bidetik.

1920ko hamarkada *zoriontsuan*, desoreka nagusitu egin zen munduaren garapen ekonomikoan. Itxura batean arrakastatsuak ziren gertakarien atzean, balizko mehatxua zegoen. Horrela, ezegonkortasun hori adierazten zuten kontraesanak gertatu ziren.

Lehenengo kontraesana: Europako industria-hazkunderik areagotu zuten. Oinarrizko industrietan —ikatza, eraikuntza, altzairua— oso polarizaturik zeuden, eta kontsumo-industria berrien bizkar. Arazoak arazo, kredituei esker eta aurrerapen-grinari esker sortu zen kontsumoa. Hala ere, argi dago Europako zenbait herrialderentzat —Alemania, Britainia Handia eta Frantziarentzat kasu— industriaren aurrerapena ukituta zegoela, mundu-mailako merkataritzan gero eta indar txikiagoa zutelako. Estatu Batuetan, ordea, aurrez adierazitako mekanizazio- eta gratifikazio-eskarien bultzadaz, bi bideak gauzatu ziren, eta jaun eta jabe egin iparramerikarren etxe eta kontsumo-joeretan. Beraz, han ahalegin handiagoa egin zen kontsumorako industria berrietan (automobilak direla, etxetresna elektrikoak direla). Eta horrek garapen-tasari Europan baino askoz bultzada handiagoa eman zion.

Bigarren kontraesana: zor-, konpentsazio- eta kreditu-sare estuaren eraginez, mundu osoan iraun zuen. Ekonomia murriztailea izan zen batzuentzat eta hedakorra besteentzat. Estatu Batuetako ekonomia mailakatuaren bi sektorek, alegia kontsumo-industriak eta nekazaritza-industriak, oztopatu egiten zuten beste herrialde batzuen aurrerapen ekonomikoa. Ipar

Amerikako industriako produktuek mundu osoko merkatuak bete zituzten. Egia esan, zenbait urte arinago iritsi ziren, Europako Gerra Handiaren ondoren, une bikainean. Aldi berean, Estatu Batuek Europako produktuen aurkako tarifa zorrotzak mantentzen zituzten. Herrialde hark gerra ekonomikoa irabazteaz gain, nekazaritzan eta lehengaietan beste inoren laguntzarik behar ez zuenez, baldintza —hurbilekoak eta urrunekoak— gehiago ezarri zituen.

Agertu zen periodo *zikliko* berrian, zenbait alternatiba ekonomiko bereiz daitezke. Hiru tarte daude: lehenengoa 1924ra arte, batez ere kalteak konpontzeko izan zen; bigarrena 1924tik 1929ra, oparotasun-garaira iritsi ziren berriro —iritsi eta inongo lotsarik gabe lau haizetara adierazi zuten—; eta hirugarrenak eten-fase bat hasi zuen, eta beherakadaren *zikloa* mundu osora hedatu (urtez urte, garaiaren eta periferia ekonomikoaren arabera). Zorritzarreko urte hark hasiera-hasieratik markatu zuen. Baina 1924tik aurrera, Ipar Amerikaren nagusitasun ekonomikoak —beste herrialde batzuei gero eta mailegu handiagoak eginez adierazten zen— agerian utzi zuen Europako herrialdeen hazkunde ekonomikoaren oinarri nagusia Estatu Batuen kapital-eta inbertsio-erabilgarritasuna zela. 1925 eta 1929 urteen artean, Ipar Amerikatik Europa 2.900 milioi dolar iritsi ziren inbertsio eta dirutan egindako mailegu gisa. Dirutza haiek zenbait arazo konpondu zituzten, beste batzuen artean: Alemaniarenak, aliatuei eman beharreko kalte-ordainei aurre egiteko —batez ere Frantziari eta Britainia Handiari—; eta, bestalde, hiru herrialdeetan bai industria bai lan publikoak berriz ekipatzeko erabili zituzten. Hogei-garren hamarkada *zoriontsuko* bigarren zatian oinarrizko kontraesanean murgilduta bizi ziren, nahiz eta gero eta aurrerapen handiagoak egin. Kontraesan horrek atzeraka eta aurreraka joatera bultzatzen zituen. Atzerriko bultzadaren eta Estatu Batuek eskaintzen zituzten bezalako maileguei esker gauzatu zen susperraldia (horrela, herrialde batzuetan inportazioak ordaindu ahal izan zituzten; beste batzuetan, aldiz, industria berriak eta kalte-ordainak). Mendebaldetik Estatu Batuetara egiten zen desbideraketa norabide ekonomiko horretan oinarritu zen neurri handi batean. Erakarpen hura zela-eta, mailegu-, ordainketa- eta errenboltso-*zirkulu* ezkor eta oreka bakoa sortu zen; baina ez hori bakarrik, *zorrenen ziklo* izenez ezagutzen zuten inbertsioetarako interes-ordainketa ere eragin zuen. Zor horrek —era batekoak behintzat— eskema berezia sortu zuen: Iparramerikako maileguak Alemaniak Ingalaterrari eta Frantziari zorrak ordaintzeko; aldi berean, ordainketa haiek bi herrialde hauetan Estatu Batuek Lehen Mundu Gerran emandako inbertsio eta laguntzen interesak itzultzeko ziren.

Nazioarteko ordainketa-eredu hura indarrean egonda, Alemaniatik egindako %60 Estatu Batuetara joaten zen, aurrez aipatu dugun *zorrenen zikloa* zela medio. Gauza bera gertatzen zen herrialde txiroetan Estatu Batuetako maileguekiko menpekotasunaren aurrean, aurreko maileguak berreskuratzean. Edozein modutan, iparramerikarrek inoren laguntzarik behar ez zutenenez, Europako herrialdeentzat aukera alternatiboa baztertuta geratzen

zen, alegia ordainketa-balantzen superabitagatiko errenboltsoa. Estatu Batuetako inbertsoreek erraztasun handia zuten beren kapitalak esportatzeko. Horregatik herrialde batzuek —industrializatuak, gelditutakoak eta txirotuak— kanpo-inbertsioen menpe zuten beren ondarearen %25; horrez gain, Estatu Batuen egoera ekonomikoa ondo baino hobeto adierazten zuten, 20ko hamarkadaren amaieran. Iparramerikako potentzian gainezka zegoen espekulaziozko dirua, eta ez zeukan behar adina kokapen erakargarririk; horren eraginez, kapitala behin eta berriro jasotzeko toki bilakatu zen. Erosketak zirela-eta, herrialdeek kapital horiek bidali behar zituzten —derrigorrez ordaindu beharreko faktura gisa, dolar/urretan—. Horregatik, Europako aliatuek Estatu Batuetan zituzten inbertsioak saldu egin behar izan zituzten, dolar/urrea hartzeko edo iparramerikarrei maileguak eskatzeko (zor haiek eta beste batzuk ordaintzeko).

Merkataritzaren bolumena ez zetorrenez bat jasotako inbertsio-mailarekin, diru-itzultzeak erreserba- / urre-transferentzia gisa gauzatu joan ziren, Estatu Batuetara bideratuz. Eta horrela, 1929. urte inguruan, Estatu Batuek munduko beste inork baino urre gehiago pilatu zuten. Horrek erakusten du herrialde honek kapitalen norabidea aldatu zuela. Iraganean zorrak izan arren, nazio hartzekodun bilakatu zen. Horren ondorioz, trukeen sistema eta funtzionamendua distortsionatu ez ezik, munduko merkataritzaren egitura ere aldatu zuen.

Hirugarren kontraesana: industriaren eta nekazaritzaren aurrerapen irrealek munduko merkataritza gainbeheran jartzen zuten batzuetan; beste batzuetan, herrialdeak —abiartzeko zorian eta atzeraldian zeudenak— susperitzeko ezintasuna agerian geratzen zen, Ipar Amerikako jatorria zuten inbertsio espekulatuak menpe zeudelako. Kontraesan hark zenbait neurri hartzea erraztu zuen, Britainia Handiak 1925ean hartu zuena kasu: urre-patroia hartzea libera esterlinaren erreferentziatzat. Erabaki hark beste herrialde batzuk jarri zituen bide berean. Baina horrek ez zuen ezegonkortasuna txikitu; alderantziz, handitu egin zuen. Gobernu aurkariak monetaren balioak neurri eta epe desberdinetan doitu zituzten, eta gainbalioztatzeak mantendu; ondorioz, urrea Estatu Batuetarantz bideratzeko estimulu berriak egon ziren. Monetaren, industriaren eta merkataritzaren kaosa ikusirik, nazioarteko ekonomian oreka lortzeko saioek gero eta mesfidantza handiagoa eragiten zuten —1929a baino lehen, gainera—. Nazioen Ligako konferentziak ez zuten konponbiderik ekarri —1927an elkartu ziren Genevan—, eta gobernuek jarriera babeskorra aintzat hartzen hasi ziren, inportazioei tarifak eta kuotak ezarri. Europako merkatua indartu gabe zegoen oraindik, eta, aduanen babes modura hasi zena, Versaillesen sortutako nazionalismo jaio berrien parekoa izan zen ekonomian.

Versaillesi eta Europako politikari buruz esan behar da Estatu Batuen isolamendua beste eremu batzuetara ere hedatu zela hogeiko hamarkadan, aduanen babes eta immigrazioa gelditu nahia lirateke horren lekuko. Estatu Batuek ateak itxi zizkioten gizakiari ere, immigrazioa mugatuz eta Europako

demografiaren presioari segurtasun-balbula itxiz. Bitxia bada ere, politika mugatzaile haiek —merkataritza eta immigrazioari zegozkionak— gobernuetatik sortu ziren, hain zuzen ere 1929ra arte *laissez faire* printzipioa Estatu Batuei loturiko erreferentzia izan zuten gobernuetatik (W. Harding-en eta C. Coolidge-ren erregimen kontserbatzaileak kasu). Agintaldi hauetan, gobernuak interferentzia oso txikiak egin zituzten negozio-kontuetan eta presidentziak oso ahulak izan ziren (Coolidge-en kasuan, hutsaren hurrengo). Dena zegoen industriaren eta negozioen menpe, hori zela-eta araudi federalaren agentziak (nazioarenak, alegia) enpresen kontrolpean geratu ziren. Andrew Mellon-i buruz esaten zuten hiru presidente izan zituela *zerbitzari* (Mellon jauna enpresa-dinastia bateko ordezkari eta Altxorraren-idazkari izan zen). Jarrera honen aurrean, *Life* aldizkariako editorial batek *ikusteko moduko* gobernuaren premiarik ote zegoen galdetzen zuen (hala ere, hurrengo milurtean negozio-gizonez fidatuko zela zioen).

Bai Europako, bai Estatu Batuetako gobernuak aurrez aurre aurkitu zituzten gertakariak eta desoreka haiek ezin izan zituzten kontrolatu. Eranitzukizuna zuten politikariak eredu xume eta zaharkituetara itzuli ziren behin eta berriro, Lehen Mundu Gerraren aurrekoetara. Europako exekutiboek ukitu kontserbatzaile nabarmenagoa zuten. Hori erakutsi zuten hainbat jokabidek, bai Frantziako gobernu indartsuenek (Clemenceau, Briand, Millerand, Poincaré), bai Ingalaterrako liberalen eta kontserbadoreen koalizioenek (Lloyd George, Baldwin), baita Alemaniako talde kontserbadoreen ere (Hindenburg). Hala ere, haien politika berregituratzaileak zalantzan geratu ziren, gerrak Europako aurrerapenaren oinarrian eragina izan zuelako. Britainia Handia eta Frantzia prekaritatearen menpe egon zirenez (tartean ezkerreko gobernuen bat ere izan zuten —1922 eta 1924—), ez zuten gaintu gerraosteko eskema ekonomiko kaltetua. Izan ere, ezin izan zuten suspertu ez zaharkitutako edo higatutako industria-sistema, ez malgutasunik gabeko merkatua; indarberritzea atzeratuz zihoalako, esportazioak gainbeheran eta prezioak ez zirelako lehiatzeko modukoak. Politika deflazionarioak ere (soldada-igoerarik ez eta benetako beherakadak zituen) ezin izan zituen gelditu langabezia endemikoa eta subkontsumo iraunkorra. Gizarte-politikak laguntza-neurriak eman zituen, eta gizarte-benefizientziari ekin zion, barruko aldarrikapen indartsuak baretzeko asmoz. Oro har, diru-politikak gorabehera handiak izan zituen eta noraezean ibili zen, nahiz eta 1925ean libera urre-patroira itzuli. Egia esan, 1929an Ingalaterra bere onera etorri gabe zegoen oraindik; frankoaren egoera hobexegoa zen, 1928an bostetik lau debalatu ondoren, balio erreala berreskuratu zuelako. Bestalde, markoak nolabaiteko oreka lortu zuen, 1924an urre-patroia itzuli ondoren.

Hala ere, Poincaré-ren gobernuak Frantzian (1929tik Pierre Laval-ekin eta André Tardieu-rekin) eta Baldwin-enak Ingalaterran (1924tik Austen Chamberlain-ekin eta Winston Churchill-ekin), zenbait lorpen erdietsi zituzten, iritzi publikoaren zenbait adostasun zabalak emaitza gisa; Ingalaterran

gutxiago Frantzian eta Alemanian baino. Jokabide autoritarioak izan zituzten gobernatzean —lege-dekretuak errekurrituz eta gerrako jokamoldeak erabiliz, hein batean bizirik zirautenak—. Aldi berean, administrarien gorputz handiek gero eta eragin handiagoa zuten Estatuan; finantza-munduko goikarguen artean hautatzen zituzten (finantza horiek gero eta indar handiagoa zuten nazioen aukera handien artean).


Dena den, 1920ko hamarkadan fenomeno bi nabarmenago agertu ziren. Munduko ekonomien arteko lokarriak sendoagoak izan arren —onerako edo txarrerako—, ekonomiak ahulago bilakatu ziren (erasotzen errazagoak ziren). Ekonomiaren eszenatoki indartsuenean mugimendu gogor bat gertatuz gero, kate-erreakzioa gerta zitekeen. Gainera, beste efektu hauek ere gehitu zitzaizkion: ekonomiaren jaitsiera *ziklikoa*, gerrak eragindako perturbazioak eta kaos zein ezegonkortasun kronikoa. Honek guztiak eragin zuen Depresio Handia zeritzon egoera larria. Beste kapitulu batean aztertuko dugu egoera hori.

1.3. Ezegonkortasunetik isolamendura; nazionalismoak goraka

1931tik 1932ra Europako, Amerikako eta Asiako herrialde askok harriduraz ikusi zuten hondamendi orokorra. Eremu sobietarra munduko merkataritzarekiko independentea zenez, gainbeheraren zikloa kanpotik ikusi zuen. European Alemaniak izan zuen zigorrik handiena. Eta Europatik kanpo, Estatu Batuek eta Japoniak pairatu zituzten depresioaren eraginik handienak. Suediak, Britainia Handiak eta —beranduago— Frantziak kalte handiak izan zituzten. Industrializatu gabeko herrialdeek —Europako ekialdekoek zein hegoaldekoek eta Hego Amerikakoek— kolpeari eusteko gaitasun txikiagoa izan zuten, nekazaritzako prezioak jaitsi zirelako eta antolatu bako merkatan borroka zegoelako (ekoizleak nork merkeago salduko zebiltzalako). Orduan geratu zen agerian, ageriago beharbada, menpekotasunaren drama edo labore bakarra lantzearen drama —kakaoa, kafea, azukrea edo garia— urrutiko edo zalantzazko kontsumo-merkaturaren aurrean.

Hainbeste tirabira zuen munduko sistema ekonomikoak nazioarteko adostasuna beharko zuen gainbeheran zihoan egoera orokorra konpontzeko eta bideratzeko. 1932an herrialdeek erreparatu gehiegi zituztenez, Lausanneko konferentzia ez zen ituna baino haratago iritsi, alde askotatik saihestezina zen puntura baino ez zen heldu: Alemaniaren kalte-ordainak bertan behera uztera. 1933an Londresen egindako Ekonomiari buruzko Mundu Biltzarrak ez zuen inolako irtenbiderik eskaintzen eta gainera gobernuak politika bateratuekiko zuten mesfidantza berresten zuten. Herrialde bakoitzak bere baliabideekin moldatu behako zuen eta pixkanaka interbentzio-eskari partikularrak —eta gobernuen eskariak— ugaritu ziren banan-banan. Atzerriko kompetentziaren aurka, nazioko industriak eta produktuak babesteko aduanatarifak ezartzea izan zen jokabiderik ohikoena.

Librekanbismo-sistemari kolpe orokor hau jota, herrialde batzuek denboran atzera egin zuten. Britainia Handiaren kasuan, 86 urteko merkataritza librea aztertu zuten, *Import Duties Act* (1932) zeritzonaren bidez; eta Frantziak, Britainia Handiak bezala, koloniekiko itun mugatuak egin zituen, menpekoekin alde biko akordioak (Otagoko Biltzarra) eta lehentasunezkoak eginez (Frantziaren kasuan). Merkatu mugatuak babesteko era honetako eta bestelako neurriak hartuz, 1933an nazioarteko merkataritzan harresi-tarifak ezarriz joan ziren. Herrialdeka eta nazio-ekonomia bakoitzeko trabak jartzeak eta zatikatzeak herrialde lehiaketarien bidea oztopatu egiten zuen, gainera kasu batzuetan trukaketarako estatu-kontrolak ezarri zituzten. Hau guztia estatuaren esku-hartzeak eragiten zuen. Estatuak krisian zegoen liberalismoaren haustura bultzatu eta merkataritza-hartuemanetan egoismoa indartzen zuen, nazionalismoari arnasa emanenez (ikus 5.1. irudia).



5.1. Irudia

Europako mendebaldeko herrialde handien ekoizpen industrialia (1920-1938)
(Indizea 100 = 1925-1929).

1932an, Britainia Handian, liberalismo ekonomikoaren sinbolo zen herrialdean alegia, Batasun Nazionalen gobernu batek —1931ko irailean Ransay MacDonald-ek eratua— uko egin zion librekanbioari. Kontsumitzaileak herrialdean bertan egindako produktuak erostera bultzatzen zituzten toki guztietan. Harrez gero, gobernuen ekonomia-politikek gero eta ikuspegi nazionalistagoak izan zituzten eta gero eta urrunago egon ziren jarrera libe-

raletatik (indar politikoak gizartean esku-hartzen zuenetik egitura hauen mekanismoak apurtuta zeuden). Era berean, sistema liberalak Depresio Handian izan zuen porrotak eta ekimen pribaturik ezak —norabiderik ezak edo hondamenak—, gobernuak esku-hartzera behartu zituzten. Baina jarrera interbenzionista berri honetan, botere politikoak iritzi publikoaren laguntasuna izan zuen batzuetan. Iritzi publikoak lozorroan zeuden ekonomiak suspertzeko jarrera zuen. Eta irtenbideetako bat izan zitekeen norberaren baliabideekiko eta indarrekiko identifikatzea, arrotzak arbuiatzea eta nazio-proiektu hedakorren menpe ez jartzea izan zitekeen bezala. Azken finean, desoreka-arrisku eta gatazka-iturri izan zitekeen nazioarteko orekarako.

2. Jazarritako eta ezabatutako erregimen demokratikoak

Nahiz eta 1920ko hamarkadan demokrazia parlamentarioak egon (euretatik batzuk Lehen Mundu Gerraren ondoren ezarritakoak ziren), urte gutxiren buruan Europako panorama politikoa ilundu egin zen; erregimen demokratikoak gero eta bakanagoak ziren, harik eta mendebaldeko taldetxo bat izan arte. Hori gutxi ez eta herrialde hauetako gobernu batzuentzat ez zen nahikoa politika klasikoa, horregatik barruko zenbait presiori egin behar zioten aurre: zela oposizio etnikoari —legezkoari zein legez kanpokoari—, zela eskuin-muturreko taldeen parlamentutik kanpoko etengabeko ekintzei (esate baterako, Britainia Handiak, Frantziak eta Finlandiak pairatu zituzten, nahiz eta demokrazia horietan era honetako joerarik izan ez). Finlandiak Lehen Mundu Gerraren ondoren hartu zuen nazio-Estatu estatusa, hala ere demokrazia poskoloniala izatea ez zen ezaugarri erabakigarria izan eskuinaren edota indar totalitarioen menpean erortzeko gerrarteko garaian.

Erdiko Inperio zahar batean, ordea, Austrian alegia, aurkako ondorioak izan ziren. Austria Inperiotik bereizitako Estatua zenez —eta ez nazionala—, hiritar askok zalantzan jartzen zuten nazio-Estatua. Alemaniarekin identifikatzen ziren eta harekin elkartzeko prest zeuden, *Ausschluss* zeritzona egiteko prest; nahiz eta gerra hartako irabazleek *diktat* bidez Inperio austro-hungariarra desegin. Beraz, Austrian demokraziarako jarrerak, *ikasketa-prozesu* gisa ulertuta, eten luzeak izan zituen, autoritarismoaren erruz eta demokrazia kanpoko erabakiz. Inperio haren barruan, hondakinetatik sortutako beste nazio bat, Txekoslovakia alegia, oso era artifizialean diseinatu zuten; estatua nazio bakarraz eraiki beharrean, bi nazio zituen bere baitan —txekia eta Eslovakia—. Eta hori, jakina, etnia desberdinen artean adostasun demokratikoa mantentzea eta erakunde berberen aginduetara irautea, gauzak behartzea eta tentsioa sortzea zen. Azkenean, 30eko hamarkadan Hitlerren eskuetan bukatu zuten, negoziaketan eta mendebaldearen onespeneraren ondoren.

Baina itxura batean hain hauskorak ez ziruditen demokraziak, nazio-Estatu ereduari jarraituz eraikitakoak (Italiakoa, Espainiakoa eta Portugalekoa

kasu), Lehen Mundu Gerra bukatu eta gutxira hondatu ziren. Beste banaka batzuek —Holandak, Belgikak eta Suitzak, batez ere— eutsi zieten erakunde. Herrialde hauetan gizartea zatituta egon arren, politikoki batuta zeuden; *gobernu gehiengodun* demokrazien aurka zeuden, politologoek darabilten kontzeptua baliatuz, demokrazia *konsoasoziazionalak* ziren. Gauzak horrela gertatu ziren, aspalditik ari zirelako ikasten eta mekanismoak zituztelako gerrarteko tentsioak eta istiluak gainditzeko.

Hala ere, gizarte gehienetan agintari demokratikoen jokabideek eta gobernuen legitimotasunik ezak erregimen demokratikoen erorketak erraztu zituzten batzuetan, eta zaildu beste batzuetan. Sistema demokratikoaz gizartearen eta ekonomiaren aldaketa —eta eraginkortasun-itxaropen zabala— errazteko edo eragozteko, urte haietan bi joera izan zituzten gobernuak: demokraziei eutsi eta demokrazietatik urrundu. Ondo ezagutzen dugun kasu batean, Alemaniako Weimarko demokrazian, Alemanian hazten ari zen sektore bati jasagarriagoak egin zitzaizkion pobrezia, desberdintasuna eta ekonomia geldirik egotea, atzerriko potentziekiko nazioaren menpekotasuna baino —gobernu demokratikoak onartu egiten zuen—. Weimarko politikariek *Erfüllungspolitik* onartu zuten moduan onartuta, ematen zuen bigarren mailako demokrazia baten nazioarteko premiei zerbitzatzeko zegoela eta ez gizartearen edo materialen kudeaketa egokiari eta premiei erantzuteko (eta, bide honetatik, nazio erdi subiranoaren bizitzak eta konfiantza berreskuratzeko).

Demokrazia *legitimoa* krisi-egoeran dagoenean —gizartearen zatiren bategi agintari eraso egiten dionean edo gobernuaren erabakiek hiritar askori kalte egiten diotenean—, legearen izaera lotesleak, agintariak agintzeko duten eskubideak (harik eta era arautuan aldaketa egin arte) eta joko demokratikoaren arauak hiritar-hautesleen gehiengoaren obedientzia eta gobernuaren erantzukizunean konfiantza izatea eskatzen dute. *Legitimotasuna*, beraz, zera da: indarrean dauden erakunde politikoak —mugak eta akatsak izan arren— balizkoak baino hobeak direla pentsatzea. Erregimenen *legitimotasunak* gorabehera handiak izaten ditu, hiritarren kopuruari eta uste sendoari dagokienez, egunez egun eman eta ken daiteke; gainera, askoren ekintza eta jarreretara loturik dago: pertsona, gizarteko sektore, elite edo interes-talde, politikari eta erakunde askoren joerara. Tradizio handiko erregimen demokratikoak sozializazio demokratikoari esker mantentzen ziren, luzaro errotuta egotea euren alde izaten zelako (konpenetrazio demokratikoa ere aldeko faktorea izaten zen). Hala gertatu zen tradizio politiko handiko herrialdeetan; belaunaldiz belaunaldi hezkuntza-sistematan, informazioan eta prentsan gizartea erabat murgilduta egon eta eliteen kultura gizarteko hainbat sektoretan destilatu zen. Baina demokrazia gazteetan, 30eko gerraosteko ezegonkortasunaren eta krisiaren aurrean, izaera erlatiboa zuten. Hauetan ez zegoen astirik soziopolitikak eta sozializazio-prozesuek patxadarik hartzeko, ez eta ikasketa demokratikoa sendotzeko; beraz, gehiengoak demokraziari zor zion *legitimotasuna* —edo obedientzia— behin behinekoa zen. Aurreiritzietan oinarrituta zegoen. Horien artean, gobernuak egindako aldagaiei buruzko iri-

egoera haiek: hauteskunde-legeek, politikako eta gizarteko eliteen jokabideek, ideologien edo *zeitgeisten* zabalkundeak —askotan demokraziak ezarri aurretik ere sortuak—, eta azkenik, alderdi-sistemak areagotzen dituzte demokraziaren krisiak (sistemak anitzak, muturrekoak eta zentrifugoak izan litezke). Bi alderdiko sistemetan konpetentzia politikoak indartu egin du oreka demokratikoa (Espainia izango litzateke salbuespen bakarra 1923ko diktadura ezarri arte. Parlamentu-mailan alderdi biko sistema zuen, nahiz eta hauteskundeetan eskualdeka hori gertatu ez); alderdi asko eta oso polarizatuak dituzten demokraziak, ordea, desoreka erabakigarriak izan dituzte sistemaren iraupenerako.

Oso demokrazia gutxitan izan zituzten alderdi biko sistemak: historikoki, Estatu Batuetan, Britainia Handian —trantsizio-garairen batean izan ezik— eta haien kolonietan, Australian, Zeelanda Berrian, Kanadan (hauek alderdi biko erregimen gisa funtzionatu zuten) eta Espainian (1923ra arte). Europako demokrazia txikiago batzuk ere alderdi biko sistema bilakatzeotan egon ziren. Hauek *izen bakarreko* hauteskunde-barrutiak zituzten, harik eta ordezkapen proportzionalan —hautesle-kopuruan— oinarritutako sistemak ordezkatu arte eta prozesu hura eten arte (hori gertatu zen Austrian, gerrarteko garaian eta 1930aren inguruan bereziki: erregimena alderdiz josita zegoela). Kasu batzuetan, Espainiakoan eta 1931ko erregimen demokratiko berrian esate baterako, hauteskunde-sistemak abantaila handia ematen zenez aukera handienei (hauteskunde-koalizio berri biri, alegia), azkenean bi alderdi prepotente eta ideologiaren polarizazio handia izan zuen; eta hori errepublika gaztearen bizitza politikoan islatu zen —baita sistemaren aurkako alderdi garrantzitsuetan ere—. Muturreko alderdi askok osatutako sistema zen Espainiako. Hala ere, makina bat herrialdek hartu zion aurrea: Portugalgo Errepublikak (1926ra arte, diktadurak ordezkatu eta *Estado Nuovo* ezarri zuten arte), Italiak (Gerra Handiaren ondoren, 1922an faxistak sartu arte), Weimarko Errepublikak Alemanian, III. Errepublikak Frantzia, Finlandiak, Txekoslovakiak, Balkanetako Estatuak eta Ekialdeko eta Balkanetako batzuek, garai demokratiko motz eta aldizkakoetan.

Gerrarteko beste demokrazia batzuk alderdi-aniztasunaren eredu ziren. Hauek tentsio txikiagoak zituzten, gobernu-koalizioak osatu eta txandakatu egiten zituztelako eta sistemaren aurkako alderdi garrantzitsurik ez zegoelako. Aniztasun moderatuko sistema hauek Europa kontinentaleko sistema *izoztu* zuten —urte askoan— Gerra Handiaren ondoren. Sistemak bost alderdi baino gutxiago izan behar zituen, eta alderdi guztiek koalizioak egiteko jarrera zuten, nahiz eta xantaia egiteko ahalmena izan. *Izozteak* hiru ezaugarri zituen: 1) Alderdi garrantzitsuenen artean desberdintasun txikia zegoen; 2) Alde biko koalizioak egiten zituzten; eta 3) Lehia zentripetuari eusten zioten (Estatuari legitimitasuna gehitzen zion, gutxitu beharrean). Belgika eta Irlanda izan ziren hiru alderdiz osatutako demokraziak. Belgikan, hala ere, sistemaren aurkako alderdiek garrantzi handia izan zuten (30eko hamarkadan botoen %11 Rex alderdi faxistaren eskuetan egon zen, eta %7,1 Flandriako nazionalisten eskuetan). Suedian, Islandian, Danimarkan eta Luxenburgon lau alderdik osatzen zuten

demokrazia. Suitzan, Holandan eta Norvegian, aldiz, bost alderdik. Norvegian eta Suedian, gainera, sozialdemokraziaren nagusitasunaren garai luzeak 1935. eta 1932. urteetan hasi ziren, hurrenez hurren.

Europako gerrartean zeuden hamahiru demokrazietatik ondorio adierazgarriak atera ditzakegu. Arazoak konparatuz eta demokrazien itoaldiak eta hondoratzeak alderatuz, alderdi-sistemak —muturreko alderdi-aniztasunak— erregimen demokratikoen etorkizunean dituen ondorioak jakiteko. Poloniak, Hungariak eta Balkanetako herrialderen batek instituzionalizazio-denbora gutxi izan zuten. Zazpi herrialde barruko arazoan ondorioz hondoratu ziren. Esate baterako, Txekoslovakia 1938an hondoratu zen, barruko eta kanpoko arazoak zirela-eta. Finlandia (1930ean eta 1932an) eta Frantzia (1934an) amiltzeko zorian egon ziren; nekez saihestu zuten patua (Frantziak 1958an jaso zuen burua. Italiako demokraziari beste horrenbeste gertatu zitzaion 1945ean, alderdi anitzeko sistema iraunkorrari esker). Irautea lortu zuten kasu hauei eta beren alderdi-egiturei Holanda eta Suitzako kasuak erantsi behar zaizkie. Herrialde hauek muturreko sistema anitza zuten (segmentatua, hala ere). Egoera hartan, alderdiak dimentsio batean baino gehiagotan kokatu ziren eta ez zuten elkarrekin lehiarik izan (bakoitzak ziurtatuta zituen bere hautesleak —etnia, kultura, erlijioa eta lurraldea kontuan izanik—, eta ezohiko demokrazia *konsoasoziazionalak* osatu zituzten). Beste salbuespenen batean, aurkako norabidea hartu zuten, ustekabeko atzerabidea alegia. Horrek erakutsi zuen erregimen-aldaketak gertatzen direla, leiala ez den oposizioko talde baten edo talde gehiagoren eraginez, gobernuko buruzagiek aukera autoritarioari heltzen diotenean. Hori gertatu zen Estoniako eta Letoniako demokrazietan: Päts eta Ulmanis presidenteez autoritarismoaren bidea aukeratu zuten. Hauteskundeetan demokratikoki aukeratu zituzten arren, demokraziaren eta gobernuaren desoreka-arriskua zela-eta hartu zuten erabaki hura. Mugimendu faxista aktibo zegoen eta alderdi asko, Letonian bereziki gutxiengo etnikoen eta ordezkari proportzionalaren eraginez alderdi-kopurua biderkatu egin zen; eta horrez gain, krisi ekonomikoak ere eragin kaltegarria izan zuen. Demokraziaren aurreko sustraiez baliatu ziren erregimenak faxista bihurtzeko, izen handiko buruzagi demokratek parlamentuz kanpoko mehatxua gainditu nahi zuten autoritarismo *prebentiboaren* bidez. Buruzagi haiek odollik gabeko Estatu-kolpeak eman zituzten, eta, 1934an, demokraziak bere burua suntsitu zuen (legitimitasuna erakunde politiko batzuen eskutik besteenera aldatzeak agerian utzi zuten erregimen-aldaketa).

Dena den, politologoek eta gizarte-zientzialariek eztabaidan jarraitzen dute oraindik ere argitzeko ea zer gertaerak eragin zuten era erabakigarrian demokrazien desoreka, hondoratzea eta —kasu bakanen batean— oreka berreskuratzea. Kasu gehienetan, eztabaida ideia hauen inguruan izaten da: demokraziaren ezarpenaren lehen faseak, sistemaren aurkako indarkeriaren ezaugarriak une desberdinetan (eta ez bereziki amaierakoak) eta gobernuen erreakzioak. Gerrarteko demokrazietan, zenbait interpretazio-ikuspegiren arabera, gobernuaren desoreken artean eta Europako demokrazia parlamentarioen

artean zerikusia dagoela dioten datuak daude, eta krisialdien intentsitatearekin ere ba omen dute lotura (bereziki, krisialdi politiko edo sozialaren ezegonkortasun gehigarriarekin. Horrek eragin zuen Depresio Handiko krisialdi ekonomikoa). Ildo horretatik, gobernuen ezegonkortasunek krisialdi politiko eta sozialak islatu zituzten; era berean, gobernu-aldaketa azkarrak ere bultzatu zituzten (berez oso egonkorak ez ziren demokrazietan). Adibidez, gerrartean —30eko hamarkadako Depresioaren hasierako urteen aurretik eta ondoren—, herrialdeetako gobernuen batez besteko iraupenari 5.2. irudian erreparatuz, konturatuko gara demokraziak Frantzia baino ez zuela iraun (batez beste), bederatzi hilabeteko gobernuak izanik. Iraupen luzeagoa izan zuten gobernuen artean, herrialde bakarrak (Estoniak) egin zuen aldaketa erregimen demokratikotik autoritarismo *prebentibora*. Depresioaren aurretik gobernu-egonkortasuna zuten gainerako herrialdeek eutsi egin zioten egonkortasunari 30eko hamarkadako krisialdiaren ondoren ere (gobernuek urte-erdiatik gora irauten zuten). Herrialde hauek izan zituzten antzeko ezaugarriak: Holandak, Britainia Handiak, Danimarkak, Suediak, Norvegiak eta Irlandak (Holanda demokrazia politikoaren egonkortasunean bigarren zegoen sailkatuta, nahiz eta haren gobernuek egun gutxiago iraun —Belgikaren jaitsiera izan zen beldurgarriagoa—). Egonkortasuna areagotu egin zen; Finlandian esate baterako, nahiz eta 1930eko hasierako urteetan krisialdi larria izan.

Xumea —eta, beharbada, eskasa— izan arren, beti izan behar da kontuan ikerketa historikoa edo zientifiko-soziala krisialdi ekonomikoen eta politikoen arteko hartuemanen begiratzean (eredu deskribatzaile konplexua egituratu barik, mekanizismo eta iritzi espekulatzailetatik urrun —Marxismoak oraintsu arte egin duen bezala—). Baina lilura hutsetik harago, indarkeria politikoaren interferentzien eraginez (bi mundu-gerraren artean loratzen ari ziren demokrazien hondoratzea eragin zuten faktoreen artean), badirudi azterketa zientifiko-sozialek zenbait faktore tartekatzen dituztela. Horietako batzuk oinarrizko egituren tentsioak izan daitezke (sistema politikoaren gatazkak, desberdintasunak, menpekotasunak eta gizartearen zein ekonomiaren aldaketa azkarrak), hasitako gatazka partikularren azterketekin tartekatutako tentsioak. Gatazkek demokraziaren aurretik gertatzen ziren (eta indarkeriak beste prozesu batzuk jartzen zituen martxan. Hala ere, militarren esku-hartze zuzena gertatzen zenean soilik erabiltzen zuten antolatutako indarkeria, erregimen demokratikoaren aurkako bidea hartzeko). Eta, gainera, azkeneko prozesu hauetan, militarrek politikan esku hartu zuten kasuetan, beraien lana kate baten azken maila izango litzateke, hain zuzen ere gainbeheran zihozten erregimenen prozesu konplexuaren azken ondorioa.

Proba-denboraldi gogor baten ondoren (epe horretan mendebaldeko herrialde banaka batzuek irmo eutsi zieten erregimen demokratikoei), prozesu iraunkorak agertu ziren, demokrazien eta herrialdeen hondoratzeak galarazi zituzten prozesuak, totalitarismora jotzen zuten bideetatik urrun. Programa gardenen formulazio-kasuak izan ziren, programen arabera definitutako helburuak eta arazoak zituzten. Arazoak demokraziaren baitan eta aukera-berdin-

	Depresioaren aurretik		Depresioaren ondoren	
	Datak	Batez besteko iraupena (egunak)	Datak	Batez besteko iraupena (egunak)
Portugal	1918ko maiatzaren 16tik 1926ko maiatzaren 28ra 30 gobernu, 19 lehen ministro	117	-	-
Jugoslavia	1918ko abendutik 1929ko urtarrilera 24 gobernu, 7 lehen ministro	154	-	-
Espainia	1918ko martxoaren 21etik 1923ko irailaren 13ra 12 gobernu, 7 lehen ministro	166	1931ko apirilaren 14tik 1936ko uztailaren 18ra 19 gobernu, 8 lehen ministro	101
Alemania	1918ko azaroaren 9tik 1930eko martxoaren 27ra 18 gobernu, 9 lehen ministro	210	1930eko martxoaren 30etik 1933ko urtarrilaren 30era 4 gobernu, 3 lehen ministro	258
Frantzia	1917ko azaroaren 16tik 1929ko azaroaren 3ra 18 gobernu, 8 lehen ministro	239	1929ko azaroaren 3tik 1940ko ekainaren 16ra 22 gobernu, 13 lehen ministro	165
Italia	1917ko urriaren 30etik 1922ko urriaren 30era 7 gobernu, 5 lehen ministro	260	-	-
Austria	1918ko urriaren 30etik 1930eko irailaren 30era 16 gobernu, 6 lehen ministro	267	1930eko irailaren 30etik 1932ko maiatzaren 20ra 4 gobernu, 4 lehen ministro	149
Finlandia	1919ko apirilaren 17tik 1930eko uztailaren 4ra 14 gobernu, 12 lehen ministro	294	1930eko uztailaren 4tik 1940ko martxoaren 27ra 6 gobernu, 6 lehen ministro	592
Estonia	1921ko urtarrilaren 25etik 1929ko uztailaren 2ra 10 gobernu, 7 lehen ministro	306	1929ko uztailaren 9tik 1933ko urriaren 2ra 6 gobernu, 5 lehen ministro	260
Txekoslovakia	1918ko irailaren 14tik 1929ko abenduaren 7ra 12 gobernu, 7 lehen ministro	340	1929ko abenduaren 7tik 1938ko urriaren 5era 6 gobernu, 4 lehen ministro	537
Irlanda	1919ko urtarriletik 1932ra 10 gobernu, 5 lehen ministro	368	1932ko martxotik 1938ko ekainera 3 gobernu, 1 lehen ministro	750
Belgika	1918ko maiatzaren 31tik 1931ko ekainaren 6ra 11 gobernu, 7 lehen ministro	432	1931ko ekainaren 6tik 1939ko otsailaren 22ra 11 gobernu, 11 lehen ministro	285
Norvegia	1913ko urtarrilaren 31tik 1931ko ekainaren 6ra 11 gobernu, 6 lehen ministro	441	1931ko maiatzaren 12tik 1945eko ekainaren 25era 4 gobernu, 4 lehen ministro	469
Suedia	1917ko urriaren 19tik 1930eko ekainaren 7ra 10 gobernu, 8 lehen ministro	461	1930eko ekainaren 7tik 1939ko abenduaren 13ra 5 gobernu, 5 lehen ministro	694
Danimarka	1920ko martxoaren 30etik 1929ko apirilaren 30era 6 gobernu, 5 lehen ministro	533	1929ko apirilaren 30etik 1942ko maiatzaren 4ra 1 gobernu, 1 lehen ministro	4.750
Erresuma Batua	1919ko urtarrilaren 10etik 1931ko azaroaren 5era 7 gobernu, 4 lehen ministro	668	1931ko azaroaren 5etik 1940ko maiatzaren 28ra 3 gobernu, 3 lehen ministro	1.035
Holanda	1918ko irailaren 9tik 1929ko abuztuaren 10era 4 gobernu, 3 lehen ministro	996	1929ko abuztuaren 10etik 1939ko abuztuaren 9ra 5 gobernu, 2 lehen ministro	730

Oharra: Egun-kopurua ez da zehatza, beti ezin delako ziurtatu noiz hondoratu den gobernu bat eta noiz osatzen den beste bat. Gobernu berria osatzeko behar den denbora izan daiteke ezegonkortasuna adierazten duen beste kopuru bat.

tasunaren bidetik konpontzen zituzten —legeari eta gizarteari zegozkionak—, *Efikazia* eta *eraginkortasuna* uztartuz, gobernuek arazoak konpontzeko gaitasuna erakutsi zuten eta erregimenaren aldeko indarrek gizartearen sendotasunari eutsi zioten gobernatu ahal izateko. Demokraziaren buruzagi ziren aldetik, boterari loturiko erantzukizunei erantzuteko prest egon ziren hautesleen aurrean (eta harago ere bai, ikusmira soziopolitiko zabala erakutsiz: demokratikoak ez ziren mekanismo politikoei heltzeko tentazioari uko eginez, alderdiez kanpoko legitimitasun-iturrietara jo gabe eta krisialdi-giroko erantzun desegokiak ekidinez).

3. Krisiaren kudeaketa, gizarte-estatu eta Estatu garaikidearen birdoitzeak

30eko hamarkadako Depresio Handiaren ondorio guztien artean, gobernuaren erreakzioek politikan eragin ekonomikoak izan zituztela azpimarra daiteke. Ondorio horiek berehala eta epe luzera egiaztatu ziren. Europako Estatuak irtenbide nazionaleri aurre egin behar zieten eta nahasmendu psikologiko, ekonomiko eta soziologikoan egonik, politika ekonomikoan esku-hartze partzialak egitea ez zen nahikoa. Aitzitik, oinarri berriak jarrita ekonomia indartzea zuten helburu, Estatuaren esku-hartzea eta zuzendaritza eskatzen zituzten ekonomia sozialak sustatzeko. Bitartean, gobernuek atzean utziko zituzten printzipio liberalak. Urte horietan, egoera sozial berriei eskubide politikoak emanda konpondu nahi ziren arazoak. Jarduera ekonomikoak Estatutik bertatik planifikatzeko eta —aldizka— antolatzeko asmoa ere bazegoen.


Aurrerago aipatu ditugun legegintza babesleez gain, ordainketa-balantzeen oreka leheneratzeko ahalegina egin zen, protekzionismoa baliatuz. Helburu horiek lortzeko, gobernuek zenbait teknika baliatu zituzten: deflazio-politika, aurrekontuen kontrola eta suspertze produktiboa, zuzeneko kudeaketa publiko bidez.

Deflazioaren kasuan, gobernuaren esku-hartzearekin prezioen muga jaitsi egin zen, bai diruaren zirkulazioa edo gastu publikoa mugatuta, bai kredituak murriztuta edo soldatak bere horretan utzita. Horrela, produkzioa lehiakorragoa izango zen nazioarteko merkatuan. Gobernuek bide kontserbadorea hartu zuten, eta ez zuten hasiera arrakastatsurik izan Britainia Handian, ia Alemaniara bakarrik mugatu zen 1932ra arte —herrialdea nazismora bultzatuz— eta Frantziara 1934ra arte.

Bigarren kasuan, aurrekontuak kontrolatzearen bidez gobernuek krisian kudeatu zituzten teknikek alde batetik, eta nazionalismo komertzial eta ekonomikoaren errekurtsoek bestetik —Britainia Handian Neville Chamberlainek arrakasta handiz egin zuena— deflazio zorrotza ekarri zuten: soldaten jaitsiera, esleipenak eta aurrekontu-ekonomia drastikoak. Modu batean edo bestean, Ingalaterrak izan zuen suspertzea Batasun Nazionalako gobernu baten lorpena izan zen, aurkariak ziren alderdi britainiarrek osatzen zuten gobernuarena hain zuzen. Suspertze hori 1934an hasi zen. Diru merkez jabetzeko aukera zegoen eta aro egokia zen ekimen pribatuetarako. Egia esan, kasu honetan, metropoliaren

protekzionismoaren eraginez ordura arte isilean egon zen inperioaren aldetik ere etorri zen bultzada. Metropoliak erantzuna eman zuen eta Britainia Handiko nazionalismoaren eskema babestu zuen. Horrek, zenbait industriaren suspertzea ekarri zuen, eraikuntzarena eta ibilgailuena esaterako. Bitartean, oinarrizko industria ia geldirik mantentzen zen, langabezia-maila oso altua zelarik.

Baina, hirugarren kasu batean, Estatuak esku hartzeko zeukan bide arruntena kudeaketa publiko zuzena izan zen, bere kargura zeuden erakundeen bitartez. Ez zegoen aurkakorik edo kontrol politikorik. Bide horrek jarduerak eta enplegua modu estrategikoan sustatzeko aukera eman zuen. Alderdi baten eta gobernu diktatorial baten justifikazio-teknika modura erabili zen bide hori. Jarduera-bide hori oinarrizko industrian eta herri-lanetan oinarritu zen. Zalantzarik gabe, kontuak hartzeko portaeraren paradigma zen, Alemaniako Estatu naziak zuena, hain zuzen ere. (ikus 5.3. irudia)



Iturria: M. Crouzet, *La época contemporánea*, vol. VII de *Historia general de las civilizaciones*, Barcelona, Destino, 1967.

5.3. Irudia

Munduko produkzio industrialia eta nazioarteko langabezia 1929tik 1934ra (1929 = 100)

Esperientzia horietan guztietan botere politikoak tartean sartu ziren mendealdeko gizarteetako eremu ekonomiko eta sozialetan. Baina beste aukera batzuk ere izan ziren Estatuak beren komunitate nazionaletan berriz finka-

tzeko. Gainera, bide batez, ekonomialarien eta liberalismoaren *laissez faire* tradizionalaren ideia ekonomikoak eraldatu zituzten. Neoliberal ingeles bategi, J.M. Keynes ekonomialariak hain zuzen, formulazio makroekonomiko berri bat atera zuen guzti horretatik, eta ekonomia tradizionala birsortu zuen *Enplegu, interes eta diruari buruzko teoria orokorra* (1936) lanarekin. Ikusmolde berri horretan, produkzioaren eta enpleguaren aldaketak ziren kausa ekonomikoen azalpena; eta bultzada ekonomikoa erantsitako eskaeretan oinarritu zen. Asko izan ziren arrazoiak: kontsumitzailearen kontsumitzeko joera (kontsumo-ondasunak), kapitalaren inbertsioak (kapital-ondasunak), edo gastu publikoa eta Estatuaren eskaera-politikak. Estatu botere-erregulatzailerik ekonomiko bilakatu zen, eta baita merkatuaren *ezkutuko esku* ere. Keynesen proposamenetan, funtsezkoa sugestio-bideak ziren —kontsumoa bultzatzeko asmoz—, eta baita Estatuaren botereen esku-hartze ekonomiko ausarta proposatzea ere.

3.1. *Britainia handia: inperio bat proban*

Gerran inbaditua izan ez zen Europako herrialdeetako bat, aliatu garai-leetako bat izan zena, tentsio etengabe bizi izan zen gerrarteko garaian. Azkenean kontrolatua izan zen tentsio hori. Garai hartan, ibilbide politiko britainiarra norabide horretan bideratu zen. Alde batetik, alderdi politikoen euskarri-lanarengatik, alderdi biko sistema zegoen politika britainiarrean eta ez zituen hiru alderdi onartzen. Bestetik, koroagatik, baita krisi dinastikoarekin ere, baina zilegitasuna galdu gabe. Eta baita ganberen erakunde erregulatzailerengatik ere (Komunen Ganberak nagusitasuna zuen Lord-en zoko tradizionalarekin alderatuta). Ezegonkortasun-garai hartan, monarkia britainiarrak jarraipen erlatiboa izan zuen: Jurgi V.a (1910-1936), Eduardo VIII.a (1936, erregetza utzi zuen, Simpson andrearekin ezkondu baitzen) eta Jurgi VI.a (1936-1952).

Hala ere, horren instituzionalak ez ziren iritziekin, ezegonkortasuna eta urritasuna jaun eta jabe egin ziren ekonomia britainiarrean Gerra Handitik aurrera. Flota suntsituta eta ikatzaren alternatiba ziren energia-iturririk gabe —orduan energia nagusiak elektrizitatea eta petrolioak ziren industrialde aurreratuetan—, Britainia Handiak beste potentzia berrien nagusitasuna jasan behar izan zuen industrian eta merkataritzan (Amerikako Estatu Batuak eta Japonia). Bere arazoak handituz joan ziren (industria zaharkituta eta gainbeheran; gizartearen protesta eta 1926ko greba orokorra; geldialdi ia kronikoa, 1929-30eko krisiarekin goraka egin zuena), eta, horrez gain, erregimen britainiarrak aspaldiko arazo bati egin behar izan zion aurre, konpondu gabe zeukan arazoiari: Irlanda. Nazioartean ere harremanek okerrera egin zuten, azaleratutako nazionalismo eta totalitarismoek eraginda. Bestalde, Britainia Handian aurrerapenak egin ziren hainbat sektoretan: etxebizitzan, hezkuntzan eta osasun-laguntzan, esate baterako. Oso kontuan hartzekoa zen.

Politikaren arloan, gerrarte-garaian hiru prozesuk garrantzi handia izan zuten: Alderdi Laboristaren loraldiak, bi agintaldi labur izan zituen gobernuan; Alderdi Liberalaren beherakada nabarmenak —alderdiaren baitan bi joera zeuden aurrez aurre, Aquith-ena eta Lloyd George-rena, eta horiek ahuldu egin zuten alderdia—; eta koalizioko gobernuak, ez baitzen oso esperientzia egokia izan.

Armistizioa sinatu zuen lehen ministroa Lloyd George liberala izan zen. Orduan gerra-koalizio baten buru zen. Aipatutako koalizioa emakumeek lehen aldiz parte hartu zuten hauteskunde ostan sortu zen. Hauteskunde horietan, Lloyd George nagusitasunez gailendu zen (1918ko azaroaren 14a). Georgeren ospeak gora egin zuen nabarmen Britainia Handian: ez bakarrik garaipena lortu zuelako, baizik eta herrialde duin bat sortuko zuela agindu zuelako, herritarrek behar zutenaren neurrikoa, eta Alemaniari gerrako gastua ordainaraziko ziolako. Hark gidatzen zuen koalizio liberal-kontserbadoreak 1919tik 1923ra eutsi zion botereari, nahiz eta laboristen eta Sinn Feineko irlandar independentisten oposizioa gero eta indartsuagoa izan. Ordezkaririk irlandarrek, Komunen Ganberan 13 eserleku zituztelarik, uko egin zioten Westminster-eko Parlamentura joateari eta beren Parlamentua berreraiki zuten (Dail Eireann) Dublinen. Bertan, Irlandako Errepublika aldarrikatu zuten.

Irlandaren arazoak ez zion Lloyd Georgeren ospeari bakarrik kaltea eragin. Horrez gain, urte askoan suntsitu zuen Britainia Handiaren eta uhartearen batasuna etorkizunean. Gerra-garaian, 1916ko dublindarren errebolta gertatu zen —bai eta *Eastern Rebellion* izenekoa ere—. Porrota izan zen, baina etapa baten hasiera adierazi zuen, zeinetan babes handiagoa eman zitzaion Sinn Fein (*Gu Bakarrik*) Irlandako alderdi nazionalistari, eta *Home Rule* konponketa ingelesa atzeratu egin zen. Orduetik aurrera, errebolta-egoera iraunkorra sortu zen Britainia Handiarekiko, batez ere 1919az geroztik. Kanpaina terrorista gogorak egin zituzten uhartean polizia britainiarraren aurka. Arazoa handia zen eta gainezka egin zion Georgeri. Negoziatu egin behar izan zuen, eta Irlandaren zatiketari (Iparraldea eta Hegoaldea) aurre egin. Kontrako bi Parlamentu zituen aurrez aurre, eta hegoaldeko konderriei autonomia eman behar izan zion 1921ean. Uhartean Jabetza Ituna proposatzean hain zuzen, Hegoaldeko Irlandak gobernu eta Parlamentua zeuzkala onartzen zen, eta kasu horietarako gobernadore britainiar batek ikuskaritza-lanak egingo zituen. Baina errepublikar independentistek, Eamond De Varela buru zutela, ez zuten Estatutua onartu. De Varela 1916an bizirik atera zen buruzagietako bat zen; behin betiko gerra zibila hasi zuen, erresistentzia irlandarraren ikurra.

1922ko abenduan Estatu Aske bat sortu zen Irlandan. Hortik irlandarren nazioa jaio zen denbora gutxira. Hori guzti hori oraindik britainiarren nagusitasun-estatusaren pean hegoaldean. Ipar Irlanda edo Ulster-eko konderriek ordezkaritza zuzena zuten Londresen. Irlandako auziaren fase erabakigarri bategi 15 urte behar izan zituen amaierara heltzeko: 1937an Konstituzio irlandarra atera zenean, hain zuzen. Handik urtebetera, independentzia etorri zen, ia erabateko independentzia, nazio berriarena eta Irlandako Estatu Askearena (Eire).

Estatu berria Ipar Irlandatik (Ulster) banatu zen, oraindik Londresen esku: De Valerak, hegoaldeko, ez zion sekula uko egin Irlanda osoko Estatu bakarraren buruzagi izateari. Eta Ingalaterratik benetan banatu nahi zuela adierazteko, Irlandako Estatu berriak uko egin zion Commonwealth britainiarrean parte hartzeari, eta jarrera neutrala agertu zuen Bigarren Mundu Gerran.


Bere aldetik, Lloyd Georgeren gainbeherak Alderdi Liberalarena ekarri zuen Britainia Handian 1922an. Harrezkero, George ez zen kargu politiko garrantzitsuetan aritu, eta bere beherakada klase popularrak eta langile-klaseak laguntza gehiago eman ez ziotelako etorri zen. Beherakada hori nabarmenagoa izan zen ontzigintzaren eta meataritzaren sektoreek egin zituzten greba gogorren ostean, 1919 eta 1921 artean. Greba horiek gogor erreprimitu zituzten. Gainera, Alderdi Kontserbadoreak, Stanley Baldwin buru zela, gobernu-koalizioarekin eta koalizio horren buru zenarekin erresuminduta, Georgeren beherakada bultzatu zuen. 1922ko urrian, kontserbadoreek gobernu garbi bat eskatu zuten. Horrez gain, kanpo-politikaren porrotak agerian jarri zituen: Genoako Konferentzia antzua, Chanak-eko jazoera edo turkiarrekin izan zuen konpromiso gorabeheratsua, esate baterako. Kritika horiek guztiak izan bazituen ere, azpimarratzekoa da George buru zuen koalizioak lorpenak izan zituela politikaren arloan: sufragio unibertsalaren ezarpen eraginkorra, emakumeak ere erroldatu zituzten (*The Sex Disqualification Renoval Act, 1919*) eta emakumezkoen sufragioa egiteko lehen aukera; etxebizitzaren eraikuntza udalekotua (*The Addison Housing Act, 1919*), guztira 213.800 1922an, Ingalaterran eta Galesen banatuta; langabezia-asegurua luzatzea eta Estatuaren erantzukizun-printzipioa ezartzea langileen babeserako, industria-aldaketan ondorioei aurre egiteko.

Ingalaterrako ondorengo hauteskundeetan, kontserbadoreen nagusitasuna nabarmena izan zen. Hiru aldikadatan izan ziren garaile: 1922-23, 1924-29 eta 1931-45. Hauek izan ziren Alderdi Kontserbadorearen gobernuburuak, hurrenez hurren: A.B. Law, S. Baldwin, N. Chamberlain eta W. Churchill. Neurri handi batean, gobernu horien kudeaketa libera berreskuratzeko ahaleginetan bideratu zen. Protekzionismoari buruzko eztabaida osagarriak ere izan zituzten.

Denboraldi labur batez, 1924ko urtarriletik urrira arte, Alderdi Laboristak hartu zuen botere britainiarra lehenengoz. J. Ramsay MacDonald zen alderdiaren burua eta langileek emandako botoei esker lortu zuten gobernatzea; garai batean Alderdi Liberalen boto-emaile izan zirenei esker, hain zuzen. Hiru alderdiko gobernu berri batek bere lekua egin zuen Britainia Handian, eta bitartean laborista eta liberalek kontserbadoreen protekzionismo komertzialerako bidea moztu zuten. Alde batetik, protekzionismoa talde industrial ingelesaren —ordurako ez zen lehiakorra— modernizazio-irtenbideei eta nazionalismo komertziala baieztatzekei asmoei ezarri zitzaizkien, bai metropolian, bai Inperio britainiarraren kolonietan.

Kontserbadoreak, berriro boterera iritsi ostean 1924ko azken hiru hilabeteetan, beren Inperioaren merkataritza eta industria berreskuratzen ahaleginak egin zituzten. Horretarako, beren sistema birmoldatu zuten, arlo horretan libra ba-

bestuta. 1926an, Baldwin agintari zela, Commonwealth sortu zen; jabarietako metropoliarekin zuten asoziazio askea, hain zuzen ere. Formula berriaren arabera, jabariak herrialde askeak ziren, berdina beren artean, autonomoak eta leialak Britainia Handiarekiko. Metropolitik banatu gabe, beren barne-eginkizunak eta lotura komertzialak modu asoziatuan kudeatzeko aukera zuten. Jabari inperialak pozik geratu ziren proiektuarekin, baita kontra zeudenak ere, eta, azkenean, Britainia Handiko Parlamentua berretsi egin zen 1931n. Britainia Handiko Inperioaren herrialde zurien *klub* moduko hura nazioarteko antolaketa kooperatiboaren kasu berezia zen; orduan, nazio denak bakanduta zeuden, beren baitan bilduta, 30eko hamarkadako depresio-garaietan. Egia esan, *klub* britainiar hark ez zien irtenbiderik ematen arazo kolonial zaharrei, Indiakoari kasu, eta are gutxiago agintaldi kolonial berriei, Palestinari, Transjordaniari eta Iraki, besteak beste. Lurralde horiek, Inperio bat desagitean sortuak, beste Inperio bati atxiki zitzaizkion, britainiarrari esaterako: eskualdatutako lurraldeetan diplomazia britainiarra buru-belarri aritu zen mugak lotzen eta moztzen (denborarekin eta deskolonizazioarekin, Estatu artifizialak sortu ziren, Kuwait esaterako) (ikus 5.4. irudia).



Iturria: M. Crouzet, *L'Époque contemporaine*, Paris, PUF, 1957, 144. or.

5.4. Irudia

Britainia Handiko langabeziaren aldaketak (1920-1940)

Gobernu kontserbadoreek ez zuten horrenbesteko zortea izan beren gizartea eta Britainia Handiko barneko ordena berriro egokitzeko gerraostean. Baldwinen gobernuari, esate baterako, Inperioaren gizarteko arazoek eta ekonomikoek gainezka egin zioten: metropolitik kanpo lurraldea eta merkataritza berrantolatu bazituzten ere, arazoak aurreko garaietakoak —liberalek eta laboristek zuzendutakoak— baino larriagoak ziren. Azpiegitura industrial zaharkitu baten eta nazioarteko lehia eta ezegonkortasun gogor baten aurrean, Baldwinen gobernuak tentsio handiko egoera sozial batean neurri monetario zorrotzak ezarri zituen 20ko hamarkadaren erdi aldera. Modernizazio teknologiko konplexu baten erronkei aurre egiteko, buruzagi kontserbadoreak soldadak jaisteko laguntza izan zuen. Trade Unions-entzat neurri horrek eraso egiten zion sindikatuak lortutakoari. Trade Unions-ak indartsuak ziren eta greba orokorrek erantzun zuten. Greba orokorrak 1926ko maiatzaren 3tik 14ra bitartean iraun zuen. Legedia hautsi zuten, eta gobernuak erreakzionatu egin zuen: askatasun sindikala arautu zuten. Gatazkak birbideratzeko araudi juridikoak ezartzea izan zen gobernuaren erantzuna, eta, erantzun horren alternatiba modura, kontserbadoreek beste neurri batzuk ere hartu zituzten. Neurri horiekin, Britainia Handia erreformismo sozial positibo batean sartu zuten. Erreformismo horri esker, kontserbadoreek aurre egin zioten krisi sozialari, eta Baldwinak 1929ra arte eutsiko zion aginteari. 20ko hamarkadako azken urteak ziren, eta urte horietan ekimenak egon zitezkeen Britainia Handian. Neville Chamberlain Osasun-ministroarena, esate baterako. Haren ekimenaren bidez, laguntza-erreforma garrantzitsuak ezarri ziren: pobreei laguntza osoa ematea Toki Administrazioetik, alargun eta umezurtzen nahitaezko aseguru-sistema onartzea eta 65 urtetik gorako erretiratuei pensioak ordaintzea. Baina, azkenean, atzeraldia iritsi zenean hamarkadaren bukaeran, Britainia Handiak ez zituen oraindik geldialdi ekonomiko eta soziala atzean utzi.

Depresio Handia Ramsay MacDonald-en laboristak boterean zeudela iritsi zen Britainia Handira. Alde batetik, politika kontserbadoreen eskema agortu zelako, eta bestetik, hautesleen botoen ondorioz birmoldaketa politikoa gertatu zelako. Hala ere, hauteskundearen ostean, ezker erreformistak atzeraldiaren ondorioa jasan zuen 1930ean, eta, horrez gain, gobernu laboristak 1924an izan ziren bezalako ezbehar politikoei egin behar izan zien aurre (orduan gutxiengoa ziren gobernuan, eta alderdi liberalaren laguntza izaten zuten aldika). 1931ko maiatzean, depresio betean, bi milioi eta erdi langabe baino gehiago zegoen Britainia Handian. Horrez gain, zama handia jasan behar izan zuen aurrekontuei zegokienean. Egoera horren aurrean, MacDonald lehen ministro laboristak kontzentrazio nazionaliko gobernuen bidea hartu behar izan zuen, eta horrela, besteak beste, ardurak eta zama politikoa banatu zituen, eta jendearen konfiantza berreskuratu. Modu horretara, bera presidente zela, kontserbadoreez eta liberalez osatutako kabinete bat sortu zuen. Hiru laborista zeuden bakarrik tartean (ikus 5.3. irudia).

1931z geroztik, Britainia Handian Batasun Nazionaliko gobernuak inoiz izandako egoera kaltetuenari egin zioten aurre. Horretarako, aurreko hamarkadan baztertuak geratu ziren aukerak berraztertu zituzten. 1932an nazionalismo komertzial eta ekonomiko bat azalatu zen, urte berean Ottawan egin zen Biltzarraren ostean. Nazionalismo hori inperioaren protekzionismo bilakatu zen. Librekanbismoaren ordean Neville Chamberlainen *Import Duties Act* ezarri zuten (1932), eta, horrekin batera, dirua berrezartzeko neurriak eta deflazio-neurriak hartu zituzten. Horrela, soldadak eta aurrekontuak jaitzi zituzten, urre-erreserbek indarra har zezaten.

Bestalde, kohesio nazional-inperiala gorantz zihoan Britainia Handian, eta, horri esker, 1935eko krisi dinastikoa gainditzeaz gain, kanpoko arazoak ere konpondu ziren. Esate baterako, helburu nazionalistak Indian eta Egipton, edo errepublikarren garaipena eta Ulster Irlandarekin batzeko eskaeren desbideratzea. Mundu osoan zabaldu zen liskar berri baten bezperan, 30eko hamarkadaren bukaeran, Estatu ingelesa indartu egin zen, bai praktika interbentzionistak eginda, bai ekonomia barrutik berreraikita.

5.3. Taula

Britainia Handiaren protekzionismo inperiala:
metropolitiko merkataritza

	1929		1939	
	Milioi libera	Orotara (%)	Milioi libera	Orotara (%)
<i>Esportazioak</i>				
Agindupeko lurak	205	24,4	257	49,7
India	77	9,2	35	6,7
Koloniak	66	7,8	69	13,4
Atzerriko herrialdeak	492	58,6	156	30,2
Orotara	839		517	
<i>Inportazioak</i>				
Agindupeko lurak	222	18,2	278	30,2
India	50	4,1	42	4,5
Koloniak	86	7,1	73	8
Atzerriko herrialdeak	862	70,6	527	57,3
Orotara	1.221		920	

Iturria: F. Crouzet. *L'économie du Commonwealth*. Paris. PUF. 1950. 125. or.

Ordurako, auto-industria berriek, energia elektrikoak eta aeronautikak bultzatzen zuten Ingalaterrako ekonomia. Industria hauek Ingalaterrako hego-ekialdean kokatuta zeuden gehien bat. Handik gutxira, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Hitlerren helburu bihurtu ziren.

3.2. *Frantziako III. Errepublikaren gainbehera*

Gerrarte-garaian, Frantziak desoreka asko izan zituen. Ibilbide hura oso markatuta egon zen III. Errepublikaren kontraesanengatik. Kontraesanok hainbat arlotan izan zuten eragina: ekonomian, diplomazian, plangintza militarrean eta alderdi politikoaren sisteman. 1870etik 1917ra, hasierako fasean, III. Errepublikako erregimenak zenbait tentsio gainditu zituen; tentsio horiek alderdi-sistema eta haren botereak higatu zituzten. Bigarren faseak, 1918tik 1940ra, aurrekoak baino ezegonkortasun handiagoa eragin zuen. Ordukoak ez ziren izan botere betearazlearen eta Asanblada Nazionalaren arteko ohiko desorekak. Desoreka haiek ezegonkortasun ministerial kronikoa ekarri zuten 1914rako, beste era batera esanda: III. Errepublikako eginkizun presidentzialen hutsunea. Gerrarteko garaian, berrikuntza bat izan zen: botere legegilearen zatiketa eta lasakeria, gobernuan gehiengoa lortzeko eta bitartezko maniobra politikoak zaintzeko. 1918tik 1939ra, gutxi jota 36 gobernu egon ziren, 20 lehen ministrok osatuta. Honetan alde handia dago Britainia Handiarekin, garai berean bederatzi gobernu izan zituen eta zuzendari-lanetan bost kabinete-buru baino ez. Honek guzti honek —eta ezegonkortasunak, jakina— eragotzi egin zituen epe luzeko legeriaren sorrera eta iraupen luzeko tradizio politikoa.

III. Errepublikaren 22 urteko krisialdiaren baitan, Leon Blum-ek, 30eko hamarkadaren amaierako Frantziako sozialisten buruak alegia, adierazi zuenez, bere herrialdean hainbeste alderdi politiko egotea zen ga-bezia politikorik handiena. Arrazoi hura zela-eta, alderdien antolaketa eraginkorrik eza izan zen arazorik handiena. Beraz, hauteskundeetako planteamenduek banakako hautagaiei ematen zieten indarra. Horrela eutsi zioten sistemari.

Frantziako alderdi politikoak hain ziren ahulak eta txikiak ze itzelezko ahaleginak behar ziren Parlamentuaren laguntza lortzeko, eta ondorioz gobernuak orekatzeko. Neurri handi batean, Frantziako historia politikoa gerrarteko garaian talde txikien ahaleginarekin lotuta dago. Hauek koalizioak eta blokeak egiten saiatzen ziren, eraginkorrako izateko (bai Asanblada Nazionalan, bai hautesleen aurrean). Ganberek ministroen aurka egiteko eskubidea zuten eta askotan baliatu zuten eskubide hura. Eta horrela, Frantziako gerrarteko gobernu asko zentsura-mozioen eraginez hondoratu ziren. Lehen Mundu Gerraren ondoren, komite eragile asko sartu zen gobernu-lanetan. Bien bitartean, Asanblada Nazionalak III. Errepublika pizteko keinuei arretaz begiratzen zien, baita erregimen autoritario baterantz egin zezakeen

desbideraketari ere. Arrisku hori ekiditeko, konponbiderik okerrera aukeratu zuen: presidentetza erdipurdiko pertsonen edo hirugarren mailako eskuetan uztea (hala gertatu zen 1920an). Urte hartan, Asanbladak ukatu egin zion lehendakaritza Clemenceau-ri eta oinarri txikiko politikari bati eskaini zion kargua, Deschanel-i (izendatu eta hilabete gutxiren buruan kendu zuten kargutik).

Kontraesanetako bat probintzietan oinarritutako alderdi politikoak egotea zen, non eta Europako Estatu zentralizatuenera batean. Antzeko kontraesana zen taldeen artean ulertzeko ahalegina egitea eta gero, itxurazko kolaborazioaren azpian (egoeren arabera koalizioak osatzen zituzten, batzuetan bloke politiko hauskorak eratuz), borrokak egitea eta koaliziotik desbideratzea. 1919an, talde zentristek eta eskuinekoek Bloke Nazionala osatu zuten, Clemenceau buru zela. Beraiek irabazi zituzten lehenengo hauteskundeak. Erdi-eskuineko koalizio berberari esker irabazi zituen hauteskundeak Batasun Nazionalako Blokeak 1926an, kasu honetan Poincaré-ren gidaritzapean. 1924an, aldiz, erdi-ezkerreko koalizioak irabazi zituen, Cartel des Gauches-ek alegia (Herriot-en aginduetara). Emaitza bera izan zuen Fronte Herrikoiak 1936an (Leon Blum zen buruzagia). Baina, askotan, koalizio bakoitzaren barruan borrokak izaten ziren boterean iraun ahal izateko —edo egoera hobetzeko—, eta gobernuak porrot egiten zuten osatu bezain azkar. Alderdi Erradikala izan zen nabarmenena. Alderdi hark bere buruzagiak jarri nahi zituen ministerioetako arduradun, koalizioa edozein izanik ere; jokabide hori gerrarte osoan izan zuen.

III. Errepublika indarrean egon zen azken garaian, erdi-eskuineko koalizioak garrantzi berezia izan zuen koalizio eta gobernu guztien artean. Koalizio hark, Bloke Nazional gisa, 1919ko hauteskundeak irabazi zituen. Ordutik 1924ra arte gobernu guztiek —Clemenceauk, Millerandek eta Poincarék gidatutakoek— arazo biri egin zieten aurre. Lehenengo arazoa finantza-krisialdia izan zen. Inflazioaren ondorioz, gobernuak maileguak eskatu behar izan zituen eta presioa egin zuen Alemaniari gerrako kalte-ordain gisa ahalik eta diru gehien eskatzeko. Fondo haiek funtsezkoak ziren Frantziako industria eta finantza-azpiegitura berreraikitzeke. Bigarren arazoa Frantziako alderdi sozialistaren zatiketa izan zen. Alde batetik sozialistak zeuden eta bestetik komunistak. Gerrarteko garaian ageriko tentsioa egon zen bi taldeen artean eta horrek gizartearen ezegonkortasuna ekarri zuen (ez hori bakarrik, hautesle ezkertiarren gorabehera ia kontrola ezina ere bai).

1924tik 1926ra bitartean, sozialisten eta erradikalen arteko koalizioak Cartel des Gauchesi eman zion garaipena. Garai hartan gizarteko desorekak areagotu egin ziren, horrez gain Frantziako prezioek gora egin zuten eta inflazioaren zein zorraren arazoak larritu egin ziren. Estatuaren garapenari dagokionez, administrazioaren aldaketak hainbat ondorio izan zituen: funtzionarioak sindikatuetan lerratzea, goi-karguak txandakatzea, ikastetxeetan

laikotasuna ezartzea eta gizartearen zein ekonomiaren zenbait hobekuntza. Baina finantzen ezegonkortasunak iraun egiten zuen eta horrek eragina zuen Frantziako ekonomian, kalte-ordainek eta kanpoko zor handiagoek zuten bezala.

20ko hamarkadaren bigarren zatian, azelerazio ekonomikoak eta gizartearen aurrerapen batzuek gobernu indartsuekiko konfiantza eragin zuten. Hori gertatu zitzaion 1926tik aurrera moderatuz eta erradikalez osatutako koaliziotik sortutako gobernuari. Poincaré urte horretan nagusitu zen Frantziako politikan. 1926tik 1931ra Batasun Nazionalako kabinete-buru izan zen eta hari esker aurrekontu- eta diru-politikak indartu egin ziren. Gastuak gutxituz eta altxortegia onbideratuz (Amortizazio Kutxa, 1928) eta frankoaren devaluazioaz, aurrekontuak orekatu egin ziren, monetak nolabaiteko oreka lortu zuen eta, ondorioz, zabalkuntzari ekin zioten berriro. Denbora gutxiren buruan, ekonomiaren aurrerapen-itxurak kapitalaren aberriratzea eta industriaren zabalkuntza erlatiboa eragin zituen. Hori dela-eta, sektore berriak ezarri ziren, aluminioa eta automobilgintza, esate baterako. Nahiz eta abiada hauek —industriarenak eta nekazaritzarenak— berandu iritsi, erabateko lana lortzeko joera eragin zuten. Garai hartan Britainia Handian gertatu bezala, Frantziako gobernu kontserbadoreak gizartearen zenbait hobekuntza tinkotzen saiatu ziren: besteak beste, gizarte-aseguruak eginez, hondamendi naturalek nekazaritzan eragindako kalteak ordaindiz eta bigarren hezkuntza doan lortuz.

Frantzian, politikaren krisialdiak eta arazo ekonomikoak besotik joaten ziren. Arazo ekonomikoen artean, Lehen Mundu Gerrak utzitakoak zama lantza ziren, kontuan izanik gainera Frantziak lehiakideek baino industria-oinarri mugatuagoa zuela. Beste herrialde batzuek ez bezala, Frantziak zaharkitutako ekipoak eta azpiegiturak berreraiki eta eraberritu egin behar izan zituen. Eta Alemaniaren kalte-ordainak bertan behera geratu zirenez, azken lerroa eperik gabe atzeratu zuten; horretan oinarritzen zen gainera Frantziako industriaren modernizazioa eta gaurkutzeko asmoa.

1931tik aurrera, kalte-ordainak bertan behera geratu zirenean (Versaillesen ezarritakoak. Haietan oinarritu zen Frantzia nazioarte-mailan suspertzeko), berriro ere oinarritzeko ekonomiara urritasunak iritsi ziren, eta, horrez gain, oztopo politikoak eta gizartearen gero eta tentsio handiagoak agertu. Gizarteko krisialdia 1931n iritsi zen Frantziara, industriaren mugek langabezia-indize handiak eragin zituztenean. Ondorio kaltegarrienak, hala ere, 1932an eta 1933an nozitu zituzten, urte haietan 1.300.000 pertsona zeuden langabezian. Sintoma hauek begi-bistakoak ziren. Lehenengo begiratuan igarri zitekeen gizartearen desegituraketa —Frantziako gizarteko sektore eta eliteen banaketa— eta betiko tentsio politikoak (erradikal, moderatu, sozialista eta komunisten artekoak) krisialdi ekonomikoaren aurretikoak izan zirela eta neurri batean areagotu ere egin zutelak. Honek berriz egituratu zuen Errepublikako erregimenaren aldaketa ezkertiarerako itxaropena: 1924ko Cartel des Gauches berriz antolatu zutenetik (1932ko hauteskundeetan); eta

1934an Ezkertiarren Batasunak Fronte Herrikoari tokia utzi eta 1936ko hauteskundeak irabazi zituenetik.

1936tik 1938ra, Fronte Herrikoia hauteskundeetan garaile atera ondoren, gobernuan nolabaiteko ituna lortu zuten sozialista, komunista eta erradikalen artean, Leon Blum sozialista gobernu-buru zela (egoera hark 1938ra arte iraun zuen, une hartan Frontearen zatiketa agerian geratu zen). Leon Blumen kabineteak jendeak espero zituen aldaketak egin zituen gizartean, besteak beste lorpen hauek: eskubide sindikalak, ordaindutako oporrak, 40 orduko lan-astea eta soldata igoerak. Baina Europako Estatu liberal zaharkituenetako bat zen Frantzia —gizarte-zerbitzu eskasak zituen—, eta Fronte Herrikoia neurriak berandu iritsi zirenez, egoera berehala irauli eta kaos ekonomiko handiagoa gertatu zen —soldata-igoeren eta gobernuaren gastu handiagoen eraginez—. Azpimarratu behar da Keynesen ekonomia progresiboaren teoriak ordura arte ez zuela inolako eraginik izan Frantzian (eskaria areagotu eta aktibitatea bultzatzeko egin behar zen gastu publikoari buruzko teoria zen). Mendebaldeko beste herrialde batzuetan, ordea, emaitzak ematen hasita zegoen, aginte publikoetatik krisialdia bideratzeko. Frantziako ekonomialariek formula liberal zaharrei loturik jarraitu zuten eta uste zuten Estatuaren eginkizun nagusia zela hazkunde ekonomikorako testuinguru natural bakarra sortzea, diru-politikak eta ekonomia orekatzeko politikak eginez. Frantziako ekonomia 1938 inguruan hasi zen artezten, ordurako herrialde batzuek lortu zuten krisialdia gainditzea (hori gertatu zen Estatu Batuetako, Britainia Handiko eta Alemaniako ekonomietan). Hala ere, frankoaren beste devaluazio batek eta susperraldi ekonomikoaren atzerapenak indarrrik gabe utzi zuten Fronte Herrikoia koalizioa. 1937. urtearen amaiera aldera eztanda egin zuen krisialdiak norabide ofiziala indartu zuen, komunistak eta erradikalak banatuz (sozialistek ez zuten parte hartzen 1938ko apirilaz geroztik); eta Daladier-en gobernu berriak hartutako gobernu-ekimenean bitartez (neurri sozial atzerakoia hartu zituen, 40 orduko lan-astea derogatzea kasu).

Hura bezalako gizartearen azterketa-neurri batek greba orokorrerako deialdia ekarri zuen erdi-ezkerreko gobernuaren aurka; nahiz eta mugimendu hark porrot egin langileen arteko borroka zirela-eta (gobernuaren aldetik, gainera, errepresio gogorra egon zen). Ordutik aurrera, lan-istiluak gutxitu ziren, baina ezkertiarrek erabat galdu zuten Errepublikako erregimenarekiko konfiantza. Aldi berean, erregimen demokratikoa bera ere legitimotasuna eta eraginkortasuna galtzen ari zen —aurkako arrazoien eraginez, elkarren aurka zeuden sektoreetan—.

Eta martxa politikoak, gobernuaren jarduerak eta sistemaren aurkako indarrek Frantziako gizartearen zatiketa handia eragin zuten —beste faktore batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola: finantzen kaosa, gizartearen polarizazioa (gero eta handiagoa zen *liga* ultrak ugaritu zirenetik), eta azkenik 1934tik aurrera eskuinak Parlamentutik kanpoko indarkeriarantz egin zuen desbideraketa—. Egoera hura oso larria zen III. Errepublika-

ren etorkizunerako; totalitarismoaren aurrekoa zela esaterik ere badago, hori iruditzen zitzaion iritzi publikoaren zati bati behintzat. Psikologikoki Hitlerrek bultzatu zuen, inbasio-mehatxua atzeratuz (nahita atzeratu zuen 1940ko maiatzera arte). Eduard Daladier lehen ministroaren azken agintaldia zen (alde aurretik ere ministro izan zen, 1933tik 1934ra. Garai hartan eskuinak gora egin zuen, indarkeria politikoak zigorgabetasuna zuen eta errepublikarren artean ustelkeria zegoen) eta ituna izenpetu zuen 1938an Munichen (hori eginda, Hitlerren eskuak aske geratu ziren). Daladierrek beste bi urte egin zituen hiltzorian zegoen gobernuaren buruan. III. Errepublika hondatzeko zorian zegoen unean, iritzi publikoa bi frontetan antolatu zen. Alde batetik, naziekin kolaboratu nahi zutenak zeuden (Frantziako gizartearen zati handi bat zen. Horrela egiten dira ulergarri fenomeno hauek: Hitler erraztasun handiz Parisera iristea, Vichyko gobernu kolaboratzailea eta erresistentziaren izaera zalantzagarria). Beste alde batetik, erabateko erresistentzia porrokatua zegoen, lurraldearen balizko errekonkistara irits zitekeena (sektore hau erresistentzian eta *maquis*ean antolatu zen, alemanen okupazioaren aurka borrokatzeko). Azken hau *a fortiori* hartutako konponbidea izan zen. Bien bitartean, naziak Daladier lehen ministroa atxilotu eta Alemaniara bidali zuten (han egon zen 1943tik 1945era. Bigarren Mundu Gerran bizirik atera zen eta, 1957tik 1958ra, sozialismo erradikalaren buru izan zen). Hitlerri edo Frantziako erregimen kolaboratzaileari gorroto ziotenek ez zuten onartu Alemaniaren anexo berria, beraientzat era onartezinean burua makurtzea zelako. Hauei erregimen kolaboratzailea Frantziako nazio-eraketarekin bateraezina zela iruditzen zitzaion eta, bestalde, ez zuten nahi Errepublika bezalako demokrazia ezegonkorrik.

3.3. Alemania Weimarko errepublika hauskorren menpe

Gerra Handian menperatu zuten Estatu nagusia 1919an antolatu zuten berriro, Versaillesen hartutako erabaki gogorregien itzalean — amore ematera behartuta — eta erregimen politiko berezi baten menpean (erregimen honen testuinguru konstituzionala Batzar Konstituziogile batek eratu zuen Weimarrren). Bitxia bada ere, han jaiotako Errepublikak *Reich* izena gordetzen zuen, Alemania garaikidea elkartu zuen Estatu Inperiala (nazioa erregimen hari esker hazi zen Europan 48 urte arinago).

Orduko Alemanian, hala ere, 1918ko urriaren eta azaroaren artean, iritzi publikoa menpeko gobernuaren aurka jarri zen, aliatuek burua makurraziko zieten beldurrez. Wilhelm (Gilen) II.a kaiserrak inperioko tronuari uko egin zionean gertaerak azkartu egin ziren (Prusiako erregetzari ez zion sekula uko egin). Kaiserrak bere burua babestu eta Holandara ihes egin ahal izateko, Badeneko Max printzea izendatu zuen kantziler. Erabaki desfasetua zen eta berandu zetorren (azaroaren 9an). Hilabete horretako 2rako eta

3rako Vienako eta Budapesteko sedizioen berri izan zuten Alemanian (herrialde honetako lehenengo matxinadak ia aldi berean gertatu ziren). Aliatuen arteko adostasunari esker, Versaillesen batzar bat egin zuten Alemaniaren errendizioaren baldintzak aztertzeko. Azaroaren 6an, iparramerikarrek Sedan okupatu zuten (Alemaniako mendebaldeko frontean) eta poloniarrek Errepublika hautatu zuten ekialdean, Bavarian (ordura arte kaiserraren menpekoak izan zirenek gauza bera egin zuten azaroaren 7an). Alemanian errepublika komunista ezartzeko arriskua zegoenez, Philipp Scheidemannek, sozialdemokraten buruak, aurrea hartu eta errepublika aldarrikatu zuen azaroaren 9an.

Egun horretan bertan, iraultzarekin batera, Max printzeak errepublika izendatu zuen eta Ebert sozialdemokratak haren ardura bere gain hartu zuen (aldi berean Herriko Komisario Kontseiluaren indar iraultzailea zuzentzen zuten). Hurrengo egunean, indar armatuek eta Berlingo Langile eta Soldaduen Kontseiluak laguntza eskaini zioten behin-behineko gobernuari. Horrekin batera, potentzia aliatuen armistizio-akordioa jaso zuen gobernuak. Europa ekialdean eta erdialdean behin-behineko gobernuak antolatzen eta menderatutako nazioak nonahi sortzen ziren bitartean, Alemanian hauteskundeak deitu zituzten. Ebertek lehentasuna eman zien, herritik sortutako beste edozein ekimeni baino lehen (une hartan iskanbila iraultzaile handia zegoen, ezker nahiz eskuina ageri ziren kexu. Alemanian ez zen halakorik eza-gutu ordura arte). Komunistek ez zuten iritzi bera, boterera indarrez iristen saiatu ziren Kiel-eko errebolta espartakistan. 1918-1919an sozialdemokratek eskainitako hauteskundeen aurrean, komunistek Errusia hartu zuten eredu eta beste alternatiba haren alde egin zuten, beraien doktrinaren ikuspegitik oso justifikagarria zelako. 1918an matxinada hura hedatu egin zen; Bremen, Lübeckera eta Hanburgora ez ezik, Municheko Langile Kontseiluen Errepublikara ere bai. Bestalde, 1920an Errepublika jaio berriaren eskuineko etsaiek Wolfgang Knapp kantzilerraren kolpean parte hartu zuten. *Freikorps* izeneko taldeek (komunismoaren aurka zeuden ofizial ohiek gidatutako boluntario-erregimentuak ziren) menpean hartu zuten hiriburua eta gobernuak Dresdera egin zuen ihes. Armadak hutsean utzi zituen errebolta hauek; hala ere, egoeraren ondorioz, 1919ko uztaietan Parlamentua berriz bildu zen Weimarrren.

Parlamentua erakunde gisa elikatu zuen hauteskunde-prozesua 1919ko urtarrilean izan zen. Une hartan Reicharenak izandako lurraldeetan agente autonomoak eta errepublikak aldarrikatu zituzten (urtarrilaren 5etik 15era, espartakisten eta komunisten matxinada Berlinen; otsailaren 10etik 14ra, Bremengo Errepublika sobietarra; etab.). Saio haiei hegoak moztu zizkieten, urtarrilaren 19an Alemaniako Asanblada Nazionalerako hauteskundeetako emaitzek ehuneneko handienak alderdi sozialdemokratari (botoen %38) eta zentrokoari (%19) eman zizkieten. Ondorioz, Friedrich Ebert sozialdemokraten burua atera zen indartuta, bera zen Alemaniako politikaririk garrantzitsuenak. Urtarrilaren 6aren eta 12aren artean, Weimarrren

izan zen Asanblada Nazionalaren batzar berrian Friedrich Ebert aukeratu zuten Alemaniako presidente eta Philipp Scheidemann kantziler, gobernua osatzeko ministro sozialdemokratak eta zentrokoak hautatuz. Urte haren amaieran, errepublika konbultsioak jota zegoen oraindik ere, boterea sakanatuta zegoelako (zentroetan, hirietan eta lurraldeetan) eta aurkako indarrek itxaropenak zituztelako. Bien bitartean, urte bukaera aldera Weimarko hirian parlamentari haiek Estatu errepublikarraren Konstituzioa erredaktatu eta aldarrikatu zuten.

Forma aldetik Friedrich Ebert zen errepublikako presidentea eta, *Reich* elkartuta jarrai zezan, gogor erabili zituen Konstituzioak eskura jarri zizkion botere guztiak. 1922ko lege batek 1925era arte luzatu zion presidente-kargua. Errepublikak ez zuen izan behar adina baliabide talde politiko heterogeneoak —eta elkarren aurkakoak— elkartzeko. Erregimenaren gailurrean jarritako presidentek ordezkatu egin zuten sozialdemokraten buru zen Ebert hura —1913an gertatu zen, August Bebel hil zenean—. Ebertek korrante politiko garrantzitsu bat gidatu zuen, kaiserraren norabide gerrazalea bultzatu zuena (1914an gerrarako kredituak emanez) eta oraindik ere marxismo errebisionistaz bustita zegoena, baina ordezkatu zuen maisu eta buruzagiaren heziketa doktrinarioa zuen. Eskarmentu handiko sozialdemokrata zen aldetik, era dogmatikoan uste zuen sozialismoak boterea hartuko zuela, baldin eta Parlamentuko bideari heltzen bazion, bestela ez.


Weimarko Konstituzioa demokrazia modernoaren transkripzio perfektutzat hartzen zuten batzuetan, nahiz eta ezerezean gelditzera predestinatuta egon. Zalantza izpirik gabe, demokrazia-testuinguru berria ezarri zuen Alemanian, non 17 *länder* edo lurralde federalez osatutako Estatu edo *Reich* bat definitzen zuten; estatu hark eskumen mugatuak zituen (batasuna mantentzeko asmoz, oraindik mehatxatuta zegoen-eta). Weimarko demokrazia parlamentarioak bi ganbera hartu zituen egitura politikoa osatzeko —*Reichstag* edo beheko ganbera eta *Reichsrat* edo lurralde-ganbera. Honetara *länder*etako ordezkariak joaten ziren—. Botere presidentziala handia zen eta kontrapisu-lana egiten zuen. Presidentea zazpi urterako hautatzen zuten boto unibertsalaren bidez; *Reichstaga* desegin zezakeen, legeak erreferendum bidez aukeratu eta salbuespen-neurriak ezarri (gizarteari bakea ekartzeko armadaz baliatu). Sistema juridiko hartan erregimen presidentzialistara jotzeko aukera legalak aztertu ziren. Gauzak horrela, presidentek zazpi aldiz baliatu zuen eskumen hori 1926. eta 1932. urteen artean.

Dena den, Weimarko Errepublika Alemaniako bizitza politikoan erregimenaren sostengu argirik gabe jaio zen. Bi euskarri garrantzitsu baino ez zituen izan. Lehenengo euskarria sozialdemokrazia izan zen. F. Ebertek, buruzagiak, erregimen berria gidatzeko sindikatuen eta kooperatiben sare zabal baten laguntasuna izan zuen. Hala ere, erakunde hark ez zuen gehiengo parlamentarioa lortu eta Ebertek alderdi tradizionalen lagunta-

suna bilatu behar izan zuen, Zentro Katolikoarena esate baterako. Bigarren euskarria armada izan zen (*Reichswehr*); porrota gorabehera, nahiko ospe oneko militarrek gidatzen zuten (Von Seeckt zen euren buru bat). Armada bere buruari eta komeni zitzaion erregimenari fideltasuna zion erakundea zen; eskuin-muturrekoen babesteko gotorleku antzeko zerbeit ere bazen. Borrokalari ohiek osatzen zituzten muturreko talde haiek; boltxebikeen mehatxuaren aurrean, beste ideia batzuk bultzatzen zituzten: pangermanismoa, antisemitismoa eta antiparlamentarismoa. Erakunde demokratikoen etsaiek Bavarian aurkitu zuten gizartearen laguntasuna, era berean erregimenaren bazterketa politikoa lortu zuten neurri batean. 1923an Municheko garagardotegiko *putscha* —Hitlerrek antolatutakoa— eskualde honetan gertatzea ez zen alferrik izan, geroztik karisma handiko buruzagi bihurtu zelako. Bien bitartean, indarkeriak Errepublikaren hasierako nortasuna degradatzen zuen.

20ko hamarkadak aurrera egin ahala, Weimarko Errepublikak gero eta oihartzun txikiagoa zuen gizarte hiritar hartan (alemaniarak 50 milioi ziren eta horien artetik %70 hirietan bizi zen). Esan beharra dago, halaber, hiri haiek ez zutela behar adina tradizio demokratikorik. Horregatik ez zegoen erregimen berriarekin identifikatutako koadro politiko ukaezinik. Gainera, nolabaiteko maila zuten politikariek sektore nazionalisten mespretxu-begiradak pairatu behar izan zituzten. Nazionalistek erregimenarekiko zuten gutxiespena hazi zen heinean indartu zen armadarekiko eta hango ofizialekiko miresmena. Iritzi publikoan gero eta zabalduago zegoen uste bat: armada ez zutela menpean hartu, baizik eta demokratek traizionatu zutela —indartzeko premia larria zutelako. Horregatik Versaillesko Itunarekiko atxikimendua—. Arestian esan dugun bezala, Alemaniak uste zuen Versaillesen adostutakoak burua makurrarazten ziola: armadari ezarritako mugak zirela-eta, gerrako erantzukizun eta kalte-ordain gisa ezarritako klausula gogorak zirela-eta. Beraz, Versaillesko Ituna Alemaniaren eta Errepublikaren ohore-galtzearekin lotu zen.

Sistema parlamentarioak ahulezia berri bat gehitu zion erregimenari, hauteskunde-sistema proportzionalaren bidez. Hauteskunde-legeak ordezkariak parekagarria eman zien talde politikoei eta horrela inork ezingo zuen behar adinako nagusitasunik lortu. 1928an, esate baterako, *Reichstagen* zortzi taldetako ordezkariak zeuden. Talde nagusia sozialdemokratek osatzen zuten, 153 diputatu ziren; kontserbadoreek edo nazionalistek 78 zituzten; Zentroko Alderdi Katolikoak 62 parlamentari zituen; komunistek 54; hauez gain, baziren talde minoritarioagoak: Bavariako Herriko Alderdia (16 aulki) eta naziak (12 ordezkari). Orokorrean, talde guztiei falta zitzairen funtzionamendu-sistemari buruzko eskarmentua, Alemaniak tradizio demokratiko txikia zuelako. Are gehiago, talde batzuk, komunistak eta nazionalistak kasu, erregimena arbuiatzen zuten. Jarrera hura zela-eta, ez zuten nahi sekula sozialdemokratekin akordiorik lortu, ez eta presidentzia-erakundearekin hartutako konpromisorik bete (ikus 5.5. irudia).



Iturria: G. Mosse, *La cultura nazi*, 1966.

5.5. Irudia

Reichstagerako hauteskundeetako emaitzak (Alemania)

1933. urtera arte luzatu zen egoera gorabeheratsu hartan, Weimarko Errepublika nahiko ezegonkorra izan zen. Salbuespena izan zen 1924tik 1929ra bitarteko tartea, orduan Gustav Stresemann kantzilerra erregimeneko buru gailen bihurtu zelako. Ordura arte politikaren eta gizartearen bilakaera kritikoa izan zen, zorabiagarria aldika. Horrelakoak izan ziren Versaillesko Ituna izenpetu ondorengo lau urteak. Urte haietan 376 politikari erail zituzten, euren artean ituna izenpetu zuten politikari bi (Ezberger eta Rathenau. Azken hau 1922ko ekainean erail zuten, Atzerri-arazoetako ministro zela). Sozialdemokraten eta armadaren arteko aliantzak erregimenaren iraupena bermatu ez ezik, Alemaniako gizartera barealditxo laburra ekarri zuten. 1923tik aurrera, gerrako kalte-ordainen pagamenduak higatu egin zuen egoera ekonomikoa. Dawes Planak (1924), aliatuei kalte-ordainak atzeratuz, ezegonkortasun ekonomikoa geldiarazi zuen. Sasoi hartan, Estatu Batuetako

maileguak iritsi zirenean, Alemaniak industria-egitura berreraikitzeke aukeraren bat bazegoela ikusi zuen. Garai hartatik aurrera, Alemaniako industria handiaren aurrerapena eta izan zuen kontzentrazioa industria-komplexu gisa ikusi behar da; honen adibide I.G. Farben (1925) eta Vereinigte Stahlwerke (1926). Alemaniako susperraldi ekonomikoa ekimen ofizialekin ere zorretan dago, izan ere Shacht-ek, Finantza-ministroak, marko-urrera itzultzea erabaki zuen. Azkenik, ekonomiaren bultzatzaileen artean, gogoan izan behar dira Reichbank-en dekretuak (1924tik 1929ra artekoak).

Oreka politikoa 1925etik aurrera etorri zen, Erbert sozialdemokrata hil eta Hindenburg denbora baino lehen aukeratu ondoren (politikari hau amore ematearen aldekoagoa zen). Mariskal monarkiko hau presidente hautatu zuteanean, nazioarteko hartuemanetan giro berria zegoen: alde batetik, *Genevako Itzpiritua* zegoen, bestalde Nazioen Liga hedatu egin zen eta azkenik 1926an Alemania Liga horretan onartu zuten. Bloke kontserbadoreak —Hindenburg inguruan eratuta zegoen— aukera egokiak eskaintzen zituen erregimena eskuinerantz joan zedin eta *Reichswehr*a erakar zezan (1928tik eskuin-muturra baztertzen saiatu zen). Bien bitartean, Alemania berriro potentzia ekonomikoa bilakatu zen Europan, hartueman ekonomikoei esker. Une horretan iritsi ziren kontinentera 1929ko krisialdiaren eraginak eta garai larriko hondamendi ekonomikoa zein soziala.

1929ko *crack*aren eragina oso larria izan zen Alemaniarentzat. Hainbat arrazoi egon zen: banketxeen maileguak eten zituztelako, produkzioa gelditu zelako, eta bai langabeziak bai gizartearen egonezinak gora egin zutelako. Kutsatutako giro hau azaldu zen 1930eko *Reichstagerako* hauteskundeetan. Naziek 107 aulki lortu zituzten hauteskunde haietan, eta, hori ikusirik, Weimarko Errepublikari amaiera ematea erabaki zuten. Hurrengo bi urteetan, *Alemaniako gaitzak* iraun zuten. Ondorio hauek ekarri zituen: erdi mailako klasea proletarizatu zen eta erreakzionatzea erabaki zuen; mendekuzaleen helburu nazionalistak handitu ziren, Versaillesen aurka agertuz; eta erakunde paramilitarrak sortuz, borroka politikoa erradikalizatu ziren. Erakunde hauek aipa daitezke: Alemaniako Alderdi Nazionalaren Altzairuzko Kasakoak, Fronte Gorri komunista, sozialdemokraziaren Estandarte Inperiala, Langabeen Frontea eta nazien Eraso Sekzioak.

1932an, Paul Hindenburg, Lehen Gerran ibilitako Prusiako mariskal zaharra, aukeratu zuten Hitler aukeratu beharrean. Hindenburg 1925az geroztik Reicheko presidentea zen —eskuineko hautagai gisa—. Nahiz eta gizon hau etengabe monarkiaren alde azaldu, Weimarko Errepublikako Konstituzioari zin egin zionez, hari loturik jarraitu zuen. Hala ere, Parlamentuko indarren zatiketa handia ikusirik, protagonismo politikoa hartzea erabaki zuen. Aldatuz joan ziren kantzilerren eta kabineteen aurrean (Brüning, Von Papen, Schleiser), Hindenburg agintean izan zuten babesa hilabeteetan zehar. Kantziler haie-tako batzuek ez zuten jakin ez gobernuan behar adinako gehiengoak lortzen, ez eta nazien igoera itzelaren aurrean erabakiak hartzen. Azkenik, Hindenburgek —gertuko aholkularien eragin handiz—, zalantza handiak izan ondoren, Adolf

Hitler proposatu zuen *Reicharen* kantziler kargurako, bera zelako 1930eko hauteskundeen ondoren zegoen alderdi indartsuenaren buruzagia.

1933ko urtarrilean, Hindenburgek baiezkota eman zuen Adolf Hitlerrek kanzelaritza har zezan. Aldaketa totalitarioa egin nahi zuen sistemaren aurkako alderdi nagusiko burua zenez, Alemaniako kanzelaritza hartzea eta Weimarko Errepublikak akabatzea gauza bera ziren. Hitler kantziler hautatu eta egun gutxiren buruan, 1933ko otsailaren 27an, *Reichstagak*, Alemaniako Parlamentuaren eraikinak alegia, sua hartu zuen. Buruzagi naziak noraezean zebiltzala ikusirik, Hitlerrek gertakariari probetxua atereaz Larrialdi Legea onartu zuen (otsailaren 28an). Hura eginda, arerio garrantzitsuenak (SPDko eta Alderdi Komunistako buruzagiak) kartzelan sartu zituen —paretik kendu zituen—. Bitartean, kantziler ohiak, Von Papenek, kantziler-orde kargua onartu zuen lehen kabinetean; itxura denez, ez zuen nahi nazionalsozialistek boterearen ardua guztiak hartzerik, baina haren saio guztiak alferrekoak izan ziren.

Bibliografia

Lehenengo gaiaren gainean, lan hauek kontsulta daitezke: Robert Dahl, *La defensa de la democracia. Una guía para ciudadanos*, Madril, Taurus, 1999; John Dunn, *La agonía del pensamiento político occidental*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996; John Markoff, *Olas de democracia. Movimientos sociales y cambio político*, Madril, Tecnos, 1999. Ferran Requejo Collen, *Las democracias. Democracia antigua, democracia liberal y Estado de bienestar*, Bartzelona, Ariel, 1990 (batez ere bigarren zatia, «Las democracias contemporáneas» eta bereziki «Las democracias liberal-sociales» zatia —122-38. or.—). Ikuspegi politologikotik, A. Lijphart-en liburuko politika garaikidearen garapenaren azterketa, *Las democracias contemporáneas*, Bartzelona, Ariel, 1991.

Ikuspegi politologiko horretatik, Juan J. Linz-en, *La quiebra de las democracias*, Madril, Alianza, 1987. Liburu honek izan duen zabalkundea eta sortu duen interesa (1996rako lau aldiz argitaratu zuten) erabat justifikatuta daude lan oso sakona delako eta sintesi bikaina lortu duelako. Gaiaren ikuspegi honetatik, funtsezko beste lan bat aipatu behar da: Dieter Nohlen-en, *Sistemas electorales y partidos políticos*, Mexiko, FCE, 1994. Aztergaiaren osagarri diren zenbait arlo interesgarri ditu Hannah Arendt-en lan ikeragarriak, *Los orígenes del totalitarismo*, Madril, Taurus, 1994 (edo bestela, Alianzak argitaratutako hiru liburukiak. Gure gairako bigarrena interesatuko litzaiguke). Lan honek iradokizun interesgarriak egiten ditu azalpenetan. Inperialismoari buruzko bigarren zatian, Arendt-ek Estatu-nazioaren hazkundea (182-93. or.) eta herri xehearen eta kapitalaren arteko lotura (207-25. or.) bezalako gaiak aztertzen dira; 6. kapituluaren (234-38. or.), berriz, «Historiaren klabe berria» gai interesgarriari heltzen dio. Hauteskunde garaikideen prozesuei eta sistemei buruzko historiografiaren ikuspegitik, Sal-

vador Forner-ek oraintsu koordinatu duen lanak Espainiako historiografiaren maila eta ekarpenak azaltzen ditu lan honetan: *Democracia, elecciones y modernización en Europa. Siglos XIX y XX*, Madril, Cátedra — Instituto Juan Gil-Albert, 1997.

Serge Berstein-ena lan orokorra da: *Los regímenes políticos del siglo XX*, Bartzelona, Ariel, 1996. Bilakaera zabalagoan, Gabriel Jackson-ek garai haiei buruzko interpretazio argia egin du bere liburuko bi ataletan. Hau da liburuen izenburua: *Civilización y barbarie en la Europa del siglo XX*, Bartzelona, Planeta, 1997. Ikuspegi ezezagunagoa ematen du Ernst Nolte-ren liburuak, *La guerra civil europea, 1917-1945. Nacionalismo y bolchevismo*, Mexiko, FCE, 1994. Liburu honek mugei buruzko tirabirez dihardu eta garai hartako egoerari buruzko iritzi desberdinak eragin zituen. Bestalde, hainbat arlotan gertatu zen bilakaera zehatza eta testuinguru historikoa Maurice Crouzet-ek azaldu zituen; herrialdeka egin zuen eta ordurako nahiko zehatza zen. Azterketa hori *Historia del mundo moderno* liburuko XII. liburukian dator (Cambridge, Bartzelona, Sopena, 1975). Hemen baino laburrago eta mozketara geografiko gogorrik gabe egin zuten garai hartan Jean Pal Brunet-ek eta Michael Launay-k *De una guerra a otra, 1914-1945*, Madril, Akal, 1991 (lehenengo edizioa, Frantziar, 1974an).

Garai hartako esperientzia demokratikoen artean, Britainia Handiko, Frantziako eta Alemaniako historiografia ikuspegi desberdinetatik eratuta dago. Alemaniaren kasuan, adibidez, azterketa-ahalegin handia egin zuen historiografiak. Horren ondorioak ikus daitezke Helmut Heiber-en *Die Republik von Weimar* lanean, München, 1968; Adam Fergusson-en *Cuando muere el dinero. El derrumbamiento de la República de Weimar* lanean (Madril, Alianza, 1984. Lehenengo edizioa ingelesez atera zuten 1973an); eta, besteak beste, Rita Thalmann-en lanean (honek azterketa gehiago izan ditu), *La République de Weimar*, Paris, PUF, 1986. Kulturaren eta gizartearen ikuspegitik, Lionel Richard-en liburua: *Berlín, 1919-1933*, Paris, Autrement, 1991. Honek baliokideak izan ditu gure herrialdean: hainbat egilek historiaren ikuspegiari buruz aldizkarietan egin dituzten eguneratzeak. Hara: *Berlín 1905-1933* lana, *Debats* aldizkariaren 22. zk. (1987ko abendua); Juan José Carreras-ek koordinatutako *El Estado alemán, Ayer* aldizkariaren 5. zk. (1992).

Historiografia britainiarrean, hura garai hartako esperientzia demokratiko laburrean aztertu duten lanek potentzia handiaren gainbeherarekin eta amaierarekin lotu dute, baita Bigarren Gerran izan zuen amaiera erabakigarriarekin ere. Hona hemen lan horien zerrenda: A.J.P. Taylor, *Historia de Inglaterra, 1914-1945*, Mexiko, FCE, 1989 (lehenengo edizioa ingelesez atera zuten 1965ean); P. Addison, *The road to 1945*, Londres / New York, Quartet Books, 1977; A. Wood, *Great Britain, 1900-1965*, Londres, Longman, 1980. Mantxako itsasartearen beste aldean ere laburpen onak egin zituzten, Roland Marx-ena esate baterako, *La Grand-Bretagne contemporaine*, Paris, A. Colin, 1973; J. Leruez eta J. Surel, *La Grande-Bretagne, les temps difficiles (1914-1977)*, Paris, Hatier, 1978; eta ikuspegi berritua, F.C. Mougel-ena,

La Grand-Bretagne au XX siècle, Paris, PUF, 1989. Frantziarentzat, nortasun nazionala eta azkeneko gerrako inbasioaren aurrean izandako esperientzia bikoitza —kolaborazioa eta erresistentzia— berriz aztertzeak gerrarteko esperientzia errepublikarrean sakontzea ekarri du. Era askotako lanak idatzi dituzte: ulerkorak, J. Chastenet-ena adibidez, *Histoire de la Troisième République, 1914-1940*, Paris, Hachette, 1957-1963 (5-7 liburukiak); sintetikoak, Jacques Nere-rena esaterako, *La III République, 1914-1940*, Paris, A. Colin, 1975; sarkorrak, Jean Marie Mayeur-ena adibidez, *La vie politique sous la Troisième République, 1870-1914*, Paris, Éditions du Seuil, 1984. Baina, harrez gero, historiografia horretan gerrarteko demokraziaren esperientziari buruzko ikuspegi argi eta sarkorra egin dute. Horren adibide bikainak dira lan hauek: Serge Berstein, *La France des années trente*, Paris, A. Colin, 1988; O. Rudelle-rekin batera egindako lana, *Le modèle républicaine*, Paris, PUF, 1992; J.J. Becker-ekin batera egindako lana, *Nouvelle histoire de la France contemporaine*, 12. liburukia, Paris, Éditions du Seuil. Eta iradokizunez beteta, D. Zérafra, *D'une République à l'autre, 1918-1958*, Paris, Hachette, 1992.

6. Kapituluak

Erregimen totalitarioak: komunismoa, faxismoa eta nazismoa

Javier Paredes

Historia Garaikideko Irakasle Titularra
Alcalako Unibertsitatea

1. Totalitarismoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak

Egiazki, oso denbora gutxi iragan zen Gerra Handia bukatu zenetik mundu osoko beste gerra bat hasi arte: pare bat hamarkada besterik ez. Urte horietan, demokraziaren balioak behera egin zuen Europan. Horrela, tradizionari ezaren eraginez, demokrazia oso gaizki egokitu zen Ekialdeko Europan. Mendebaldeko Europan, berriz, gerra ezin geldiarazi izana leporatu zitzaion kasurik hoberenean, edo gerra bera eragin izana, beste batzuetan. Jakina, urte haietan krisi ekonomikoak bazterrak gogor jo zituen, baina batez ere moraltasuna nabarmen behera etorri, eta mundua *supergizonen* besoetan gerizpetu zen, askatasuna errotik erauzi nahi zuten *supergizon* haien besoetan, alegia.

Gizon horiek Estatua jendearen kaltetan handitu zuten. Estatua, sortu zen une beretik, ahalegindu zen gizartea menderatzen eta, jadanik, prest zegoen azken erasoari ekin eta behin betiko irtenbideak ezartzeko, hori bai indarkeria eta, azken batez, heriotza erabilita, jakina. Horrela, bada, lehen gerrari beste odoltsuago bat jarraitu zitzaion. Edo nahiago bada, zenbait historialaririk ikusi nahi izan duten moduan, hura pausaldi hutsa izan zen, zertarako eta zenbaitek *hogeita hamar urteko gerra berria* deitutakoa bururaino eramateko.

Hurrengo kapitulu batean ikusiko dugun bezala, Bigarren Mundu Gerraren hasiera ez zaio arrazoi bakarrari zor. Aitzitik, gerren arteko garaian jazo-tako gertakari askori zor zaie gerra piztu izana, eta 1939ko irailaren lehen-biziko egunean hasi zen, Alemaniak Polonia inbaditzearekin bat. Ondorioz,